

ESKOLARTEKO IPUIN LEHIAKETA

XXVII.edizioa

2 0 1 5



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

ESKOLARTEKO IPUIN LEHIAKETA

XXVII.edizioa

2 0 1 5

*Mi
Rafael Koleta*

Fotokonposaketa eta Fotomekanika:

IKUR, S.A.

Inprimatzailea:

TECNIGRAF, S.L.L.

Lege Gordailua: BI-753-2015

Liburu honek Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzak jaso ditu.



Zorionak Arabiar Areto honetan zaudeten neska-mutiko guztioi. Honelako ekitaldietan protagonistek hartzen dute parte eta zuok, gaur, protagonista zarete gure artean.

Hona zatoztela ikusi duzuenez, Bilbo zuri gorritz jantzita dago kopako finala dela eta. Beharbada, astelehenean, Athleticen jokalaria izango dira areto honetan bertan, Bartzelonan irabaziz gero. Baina, gaur, zuok zarete protagonista eta ongi etorria ematen dizuegu.

Zorionak, beraz, irabazleoi, Mikoleta ipuin-lehiaketan aurkeztu eta saria lortzeagatik. Eskerrik asko, zelan ez, lehiaketa irabazten saiatu diren gainontzeko guztiei, parte hartzea eta saiatzea irabaztea bezain inportantea baita.

Ibon Areso
Bilboko Alkatea

Sariak

Bilboko Udaletxean, bi mila eta hamabosteko martxoaren hamaikako arratsaldeko lau eta erdietan batuta, hauxe erabaki du Rafael Mikoleta XXVII. Ipuin Lehiaketaren epaimahaiak, aurkeztutako 971 ipuinak aztertu ondoren:

A KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak):

1. TERRAKOTTAZKO GUDAZAIEN MALDIZIOA,
Tasio Zuberogoitia Etxegarai,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.
2. ENDIKAREN HIRU BIDAIAK,
Iker Eguía Blasco,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.
3. LAGUNAK EZ ZITUEN INURRIA,
Paul Eiguren Alvarez,
La Salle Bilbao HLBHIP.

B KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak):

1. ITXAROPENA,
Haizea Garcia Villanueva,
Uribarri HLHI.
2. ETA BENETAN JELOSKOR BANAGO?,
Martina Villate Martinez,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.
3. NIRE BIZITZAKO ABENTURARIK HANDIENA,
Ander Villacián Crespo,
Artxandape Ikastola HLBHIP.

C KATEGORIA (DBHko 1. eta 2. mailak):

1. NON BIZI OTE NAIZ??,
Itxaso Hernández Costoya,
Karmelo Ikastola-Solokoetxe BHI.
2. JOKIN,
Olatz Robles Irigoien,
Deustuko Ikastola IPI.
3. GURE TXORIA,
Ane Marquínez Pereda,
Begoñazpi Ikastola HLBHIP.

D KATEGORIA (DBHko 3. eta 4. mailak):

1. NEKEAK,
Ibone Andracka González,
Ignacio Ellacuria-Zurbaran BHI.
2. INOR EZ,
Irati Martinez de la Higdala Grande,
Karmelo Ikastola-Solokoetxe BHI.
3. MAITASUNAK EZ DU GENERORIK,
Liudmila García-Salmónes Chobotov,
Nuestra Sra. de Begoña LBHIP.

ARGITARAGARRIAK:

A KATEGORIA:

- MAKALAREN BIDAIA, Aimar Gomez Cerro, Kirikiño Ikastola HLBHIP.
- UXUE ETA FUTBOLA, Nayra Cadenato Gonzalez, Birjinetxe HLHI.
- TOMATEAK ETA MELOIAK, Libe Florido Brea, Kirikiño Ikastola HLBHIP.

B KATEGORIA:

- HIRU UMEREN DESIOA, Angela Pfluegl Hernaez, Deustuko Ikastola IPI.
- POZAREN LURRALDEA, Iratxe Kobeaga Rui-Wamba, Maestro García Rivero HLHI.
- EGUNKARIAREN TRAGEDIA, Pablo Camara García, San Inazio HLHI.

C KATEGORIA:

- AMETSA, Markel Becerra Lorenzo, San Adrian BHI.
- ZER DEMONTRE GERTATZEN ZAIE NIRE BETAURREKOEI?, Silvia Laucirica Perez, San Adrian BHI.

D KATEGORIA:

- ERANTZUNIK GABEKO GALDERAK, Oihane Ozaeta Fernandez, Karmelo Ikastola-Solokoetxe BHI.
- BIZITZA ALDARRIKATZEKO KANTUA, Ainhoa Garay Benítez, Artxandape Ikastola HLBHIP.
- EZER EZ DA BETIKO, Beatriz Uruga Corchete, Ignacio Ellacuria-Zurbaran BHI.

Eta batzarra bukatutzat ematen da, Bilbon, bi mila eta hamabosteko martxoaren hamaikako arratsaldeko seietan.

Sabin Anuzita Pomposo, epaimahaiburua

<i>Lutxo Egia, epaimahaikidea</i>	<i>Igone Etxebarria, epaimahaikidea</i>
<i>Irene Berro, epaimahaikidea</i>	<i>Irati Malatsetxebarria, epaimahaikidea</i>
<i>Juan Ramón Madariaga, epaimahaikidea</i>	<i>Txani Rodriguez, epaimahaikidea</i>
<i>Luis Gutierrez, epaimahaikidea</i>	<i>Pedro Alberdi, epaimahaikidea</i>

Goizalde Landabaso, epaimahaikidea

Nagore Layuno, idazkaria


A
KATEGORIA
(LHko 3. eta 4. mailak)



Terrakotazko gudazainen maldizioa

*Tasio Zuberogoitia Etxegarai,
Kirikiño Ikastola HLBHIP*

Bazen behin arkeologo bat, Xianen hilobira joan zena.



Ailegatu zenean oso emozionatuta gelditu zen.



Miatzen hasi zen.



Arratsaldea ailegatu zenean handik alde egitea erabaki zuen, baina ez zen konturatu bere lupa han ahaztu zuela.

Orduan, bueltatzea erabaki zuen bere lupa berreskuratzeko.



Hartzerakoan gudazain guztiak esnatu egin ziren eta borroka egiten egon ziren gau osoan zehar.




Baina eguzkia atera zenean guztiak geldi geratu ziren.

Orduan arkeologoak ihes egitea lortu zuen terrakota zati batekin.



Etxera itzuli eta bere lagun zientzialariengana joan zen terrakota zatia erakustera.


Zientzialariak oso harrituta geratu ziren ikusi zutenarekin eta berri txar bat eman zioten.



Arkeologoa izutu egin zen.



Arkeologoa ahal izan zuen azkarren bueltatu zen Txinara.



Hilobira ailegatu zenean gudazain guztiak ikusi zituen eta bera hiltzeko irrikitan zeuden, baina berak terrakota zatia hartu eta lurrera bota zuen.

Orduan, gudazain guztiak formazioan jarri ziren.



Arkeologoak eskerrak eman zizkien eta zin egin zuen ez ziola inori ezer kontatuko.



Eta Bilbora itzuli zen.

Hogeitaz urte igaro eta gero...



Ailegatu zenean guztia oso aldatuta zegoen.

Xianen hilobi gainean etxeak eraikitzen zeudela ikusi zuen.



Alkateari bere sekretua kontatu zion eta oso harrিতuta utzi zuen.



Hilobira joan ziren korrika eta obrak gelditu zituzten.

Alkatea oso pozik zegoen arkeologoarekin eta eskerrak eman zizkion.



Arkeologoa poz-pozik bueltatu zen Bilbora, Txinako monumenturik garrantzitsuena salbatzea lortu zuen eta.

Endikaren hiru bidaiak

*Iker Eguía Blasco,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.*

Bazen behin mutil bat Bilbon bizi zena. Endika zuen izena eta 18 urte zituen. Txikitan liburu bat irakurri zuen eta izenburua “Munduari itzulia 80 egunetan” zen. Bera izenburu horretan inspiratu zen eta, ikasketak amaitu eta gero, bidaia batzuk egitea erabaki zuen.





Bere lehenengo bidaian Afrikara joan zen, Etiopiako herri txiki eta pobre batera. Han umeak txiroak ziren eta eskolara joateko egunero bide txarra eta luzea egin behar zuten. Gainera etxera itzultzean umeek etxeko lanak egin behar zituzten: abereak zaindu, janaria prestatu, ... Han Endikak lagun bat egin zuen Diop izenekoa. Diop oso majoa zen eta Endika bere etxera gonbidatu

zuen. Etxea txikia zen, familia guztiak logela batean egiten zuen lo. Ez zeukaten elektrizitaterik ezta urik ere.

Hurrengo bidaian Indiara joan zen, hango hiriburura, Delhi Berrira. Han umeak ez ziren joaten ikastolara. Txikitatik lan egiten zuten eta beti egoera txarretan: harriak zatitu, arropa josi, kalea garbitu... Endika konturatu zen neskak ez zirela mutilak bezain alaiak, eskubide gutxiago zituztelako.

Hirugarren bidaian Mexikora joan zen, Guadalajarako herri batera. Han ume bat ezagutu zuen kalean eta Endikak galdetu zion:

—Non daude zure gurasoak?

—Estatu Batuetara joan dira lana aurkitzera.

—Eta zu norekin zaude?

—Nire amamarekin nago. Hemen Mexikon delinkuentzia asko dago eta kontu handiz ibili behar gara. Gainera pasa den astean lurrikara bat egon zen eta orain ez daukagu etxerik.

Azkenean Endika Bilbora etorri zen eta orduan konturatu zen ez zituela ikusi leku politak bakarrik, baizik eta bizitza desberdinak ere. Herri bakoitzean gauza bat ikasi zuen: Afrikan ume guztiak ikastolara joan behar direla, Indian denak berdinak garela eta Mexikon denok gure familiarekin egon behar garela.



Lagunak ez zituen inurria

Paul Eiguren Alvarez,
La Salle Bilbao HLBHIP.

Bazen behin inurri bat Joxetxo deitzen zena. Joxetxo inurritegi baten bizi zen. Inurritegia argia eta txikia zen.

Joxetxo ez zen beste inurriak bezalakoa. Bera urdina eta berdea zen. Egun batean, jolastera irten zenean, inurri batzuekin topo egin zuen. Inurri horiek soka-saltora jolasten ari ziren eta Joxetxok haiekin jolastu ahal zuen galdetu zien, baina ez zioten utzi jolasten. Joxetxok, erantzun horretan pentsatu gabe, aurrera jarraitu zuen.

Bidean zihoala beste inurri batzuekin topatu zen eta jolastu ahal zuen galdetu zien, eta ezetz esan zioten berriro.




Azkenean munduko inurri guztiei galdetu zien eta ez zioten utzi haiekin jolasten. Joxetxok bere koloreagatik ez ziotela jolasten uzten pentsatu zuen.

Inurritegira triste-triste bueltatu zen eta bere logelan giltzapetu zen. Han pentsatzen hasi zen eta ideia bat bururatu zitzaion.

Margolari bati galdetu zion: Kolore beltza utziko al didazu? Eta margolariak erantzun zion: Bai, noski utziko dizudala.

Orduan Josetxok margoa bota zuen gainetik eta jolastera joan zen. Inurria plazara heldu zenean inurri batzuekin topatu zen eta jolastu ahal zuen galdetu zien eta oraingoan baietz esan zioten eta lagunak egin ziren.

Hurrengo egunean, berriz ere topatu ziren eta erreka ondora joan ziren. Han harrapaketan jolasten ibili ziren eta konturatu gabe erreka jausi zen Josetxo eta kolore beltza kendu zitzaion. Baina inork ez zion ezer esan koloreari buruz benetako lagunei ez zaielako axola desberdinak izatea.



Makalaren bidaia

Aimar Gomez Cerro,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.

Bazen behin Afrikan bizi zen Makala izeneko umea. Bere familiarekin ahuntzak zaintzen zituen. Oso pobreak ziren eta esnearen salmentaren bidez dirua lortzen zuten eta haren truke janaria erosten zuten. Ez zeukaten etxerik, ez arroparik, ezta ura edateko ere ez.




Makalak ez zuen eskola ezagutzen. Hamahiru urterekin ez zekien ez irakurtzen ezta idazten ere.



Egun batean, Makalak entzun zien nagusi batzuei elkarrizketan esanez nola pentsatzen zuten bidaia bat antolatzea, European bizitza hobe berri bat izateko. Eta korrika eginez, bere gurasoengana abiatu zen kontatzera.

Egun batzuen ondoren, eta asko pentsatuta, animaliak saltzea erabaki zuten bidaia hori haiek ere egiteko. Aste bete pasatu eta gero, hondartzara joan ziren eta beste hogeit hamar pertsonarekin txalupa batean igo ziren eta itsasoratu ziren, arriskueta pentsatu barik.



Bost egun zera matzatenean, Makalak itzelezko arraina ikusi zuen haiengana hurbiltzen eta oso ikararuta hasi zen oihukatzen:

—Aarriskua, arriskua! Munstro bat!

Guztiak begiratzen hasi ziren oso urduri, baina azkenean izurdeak zirela konturatu ziren. Hauek haien lagunak egin ziren eta horrela kostaldera heltzeko lagun-tza lortu zuten, itsasoan ez galtzeko.



Hamabi egunetan zehar, gosea, egarria, hotza, beroa eta beldur handia sentitu zuten baina... azkenean, lortu zuten! Amestutako lurtean zeuden! Oportunitatez beteta eta askoz bizitza hobea izateko prest zeuden.

Horrela, Makalak ikastola ezagutu zuen gauza pilo bat ikasiz eta lagunak eginenez!



Uxue eta futbola

Nayra Cadenato Gonzalez,
Birjinetxe HLHI.

2014ko irailaren 3a

Kaixo, nire izena Uxue da, 9 urte ditut eta futbola maite dut. Baina eskolan ez didate mutilekin jolasten uzten, neskek ez dakigula futbolean jolasten esaten dutelako. Hori gezur itzela da!

2014ko irailaren 7a

Urduri nago futbol talde batekin entrenatzeko izena eman dudalako.

2014ko irailaren 8a

Gaur izan da lehenengo entrenamendua



eta oso ondo jokatzen dudala esan didate. Oso atseginak, adeitsuak eta alaiak izan dira nirekin, zorte handia izan dut.

2014ko irailaren 14a

Hurrengo larunbatean nire lehenengo partida jokatuko dut, baina talde horretan oso onak direla esan digute. Horrexegatik asko entrenatu beharko dugu.

2014ko irailaren 26a

Gaur izan dut nire lehenengo partida. Hasieran, irabazten hasi gara 1-0; gero, 1-1 berdindu dugu; jarraian, 1-2 haiek irabazten; eta azkenik, 1-3 galdu dugu; baina ez zait inporta. Oso ondo egin dugu eta primeran pasatu dut.



2015eko otsailaren 14a

Entrenamenduekin jarraitzen dut. Ez dut utziko, asko gustatzen zait eta. Neskek futbola probatuko balute, ziur nago asko gustatuko litzaiekela.

2024ko martxoaren 16a

Bederatzi urte daramatzat gogor entrenatzen. Orain 18 urte ditut eta eskola-ko futbol talde baten entrenatzailea naiz. Gustatzen zaidana egiten jarraitzen dut eta zoriontsu bizi naiz.

Tomateak eta meloiak


*Libe Florido Brea,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.*

Bazen behin, ortu baten, Tomate izeneko herria. Klaro tomateak ziren. Beraien herrian oso ondo eta baketsu bizi ziren, herria txikia izan arren.

Ortuaren beste aldean meloiak bizi ziren. Meloiak eta tomateak oso txarto

konpontzen ziren beraien artean, ortuaren gobernatzaileak izan nahi zutelako. Orduan pentsatu zuten guda antolatzea, eta guda hori irabazten zutenak gobernatzaileak izango ziren.

Tomateak eta meloiak gudarako prestatzen hasi ziren. Tomateek zituzten armak marrubiak eta gereziak ziren, eta meloiak zituzten armak madariak eta sagarrak ziren. Orduan, dena prest zeukate-





nez, guda hasi zen. Tomateak eta meloiak marrubiak, gereziak, sagarrak eta madariak euren artean botatzen hasi ziren. Egunak eta egunak pasatu ziren, eta oraindik gudak jarraitzen zuen. Azkenean tomate batek esan zuen:

—Zertarako gehiago borrokatu, ez badogu ezer lortuko frutak botatzen? Lortuko dugun bakarra ortua apurtzea izango da.

Dena isilpean geratu zen. Inor ez zen ausartzen ezer esaten tomateak arrazoa zuelako.

Orduan tomate batek esan zuen:

—Arrazoa duzu, gudarekin ez dugu ezer lortuko.

Tomateak eta meloiak txarto sentitu ziren eta euren artean barkamena eskatzen hasi ziren. Eta hortik aurrera tomateak eta meloiak lagunak izan ziren.

B
KATEGORIA
(LHko 5. eta 6. mailak)



Itxaropena

Haizea Garcia Villanueva,
Uribarri HLHI.

1 1992ko otsailaren 15a

Afrikan nago, Tizniten (Marokoko hegoaldean), Europara bidaiatzeko irrika izugarriarekin. Bihar bertan, nire 16 lagunok eta nik patera bat hartuko dugu eta Espainia alderantz abiatuko gara.

Ez dakit zenbat iraungo duen bidaiak, ezta bizirik helduko naizen ere. Baina saiatzea mereziko duela pentsatzen dut.

1992ko otsailaren 16a, goizeko 9:30ak

Gaua oso gaizki igaro dut. Ezin izan dut lorik egin eta tximeletak sentitu ditut neure sabelean.

Goiza heldu da eta herriko plazarantz abiatu naiz. Ailegatu bezain laster han zeuden guztiak, haien artean Yihad, nire betiko laguna; Mohamed, nire auzokidea; eta Ellema nire bihotza bizirik mantentzen duen neska.

“بيع القوارب” (txalupen salmenta) jartzen duen dendara joan gara, han gure diruarekin patera bat alokatzeko. Bakoitzak 600 euro ordaindu dizkio paterak



zaintzen dituen gizonari eta hark sartzen eta ondo ziurtatzen lagundu digu. Gero, gida liburu bat eman digu eta zorte ona opa digu. Guztiok prest egon garenean, Louamek motorra piztu du eta paterak abiadura hartu du.

1992ko otsailaren 16a, gaueko 23:00k

Lehenengo eguna lasaia izan da, berririk gabekoa. Bigarren egunean leku falta eta egonezina sumatu dugu. Baina jarrera aldatuz arazo hori azkar konpondu dugu.

1992ko otsailaren 22a

Seigarren eguna da eta Yihadek Gibraltarreko itsasartetik 25km-tara gaudela esan digu. Asko poztu gara eta kementsu mantendu gara.

Ordu batzuk geroago, zoritxarrez, euri zaparrada hasi da. Guztiok elkarri besarkatu diogu eta euria ateri arte itxaron dugu, gutxi iraungo zuelakoan. Azkenik, bi ordu geroago euria egiteari utzi dio.



1992ko otsailaren 23a

Sustoa igaro ondoren, guztiok lasaiturik humus eta gazta bokata batzuk jan

ditugu, onik gaudela ospatzeko. Arratsaldeko zazpiak aldera lo egiteko prestatu gara. Baina gauerdian olatu izugarriek esnatu gaituzte. Ezin izan dugu lorik egin eta ikaragarritzko beldurra sentitu dugu guztiok.

Gainera, espero ez genuenean Shaidak estu eta larri oihukatu du: “balea bistan!”. Gordelekuan zeuden makila batzuk hartu ditugu eta baleari bota dizkiogu uxatzeko. Zorionez, ikaratuta, itsaso barrenera joan da igerian.

1992ko martxoaren 5a

Galduta gaude, badaramatzagu jada 17 egun itsasoan noraezean eta oso nekatuta eta arduratuta gaude. Badirudi ez garela inoiz helduko eta ez dugula gure helburua lortuko. Jakitokian bi egunetarako janaria eta bost egunetarako ura bakarrik gelditzen zaigu. Gure kezkak areagotu egiten dira egunak joan eta egunak etorri. Ez dakigu lortuko ote dugun.

Baina oraindik **ITXAROPENA** gurekin daukagu.

MUGAK itxi ahal izango dituzte, baina inoiz ezin izango dituzte gure **AMETSAK** suntsitu...

Eta benetan jeloskor banago?

*Martina Villate Martinez,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.*

Gaur ere afarian Andoni niri begira dago, irribarre inozo horrekin. Andoni gorroto dut. Andoni nire amaren mutil-laguna da, ama berarekin topatu zen orain dela 8 hilabete eta ikusi nuenetik ez zaidala gustatzen erabaki nuen. Amak nire bigarren aita bezalakoa izango dela azaldu dit, laster ezkonduko dira eta.

–Andoni ez da inoiz nire aita izango! –esan diot askotan.

Nire aita Madrilen bizi da bera eta ama banandu zirenetik. Oporrak direnean nire neba txikia (Aitor deitzen da) eta biok hara joaten gara bisitan.

Andoni nire neba txikiaren gustukoa da. Normala iruditzen zait. Aitorrek 6 urte ditu eta nahi duen gauza bakarra berari kasu egitea da. Andonik kasu egiten dionez, poz-pozik dago neba.

–Aitziber, ez duzu inoiz zopa amaituko ala? –galdetu dit amak.

–Pizza balitz, azkar-azkar amaituko nuke –esan diot, lehor.

–Badakizu pizza afaltzeko ez dela batere osasungarria –izan da amaren erantzuna.

Gaur zopa dago afaltzeko eta gorroto dudan beste gauza bat zopa da. Aurpegi txarrarekin begiratu diot amari eta platerean geratzen zen zopa guztia jan dut. Gero nire logelara igo naiz eta biharko motxila prestatu dut, bihar eguaztena denez, eskolara joan behar dudalako.

Gaur nire klasera neska bat heldu da. Kattalin du izena eta patioan hitz egiten egon gara.

–Orduan, zure gurasoak ere banatuta daude? –galdetu diot.

–Bai, eta nire aita berriro ezkondu da –azaldu dit.

Nik Andoni ez dudala atsegin aitortu diot. Laster ezkonduko da amarekin, baina ez dut nahi. Orduan, Kattalin barrez hasi da.

–Zergatik egiten duzu barre? –galdetu diot.

–Badakit zelan sentitzen zaren, baina, ez duzu jeloskor jarri behar...

–Ez nago jeloskor! –moztu diot azkar-azkar.

Eta bere aita berriro ezkondu zenean jeloskor zegoela azaldu dit Kattalinekin, aurrerantzean aitak jaramonik egingo ez ziola uste zuelako. Baina jeloskor egotea tontakeria zela konturatu zen. Gainera bere aitaren bikoteak ere kasu egiten dio. Gainera Kattalinekin nahi duen gauza bakarra bere aita pozik ikustea da. Hori nahi ez balu, oso berekoia izango litzatekeela azaldu dit.

–Ez naiz nirekoia –esan dut– baina Andoni ez da nire gustukoa.

–Zergatik? –galdetu dit.

Pentsatzen geratu naiz. Zergatik gorroto dut Andoni?

–Ez dakit –erantzun diot.

Irribarre egin du. Neska hau txoratuta dago! Gainera ez dauka arrazoirik, ez nago jeloskor! Ez naiz nirekoia! Pentsatzen nengoen bitartean txirrinak jo du eta klasera abiatu gara. Klasean gaiari bueltak ematen egon naiz. Eta benetan nirekoia banaiz? Ni ama pozik egotea nahi dut, baina Andoni ez dut gogoko. Hori al da jeloskor egotea? Ez, ezinezkoa da! Ala bai?

–Aitziber, ba al dakizu problema horren erantzuna? –galdetu dit andereñoak bat-batean, arbela seinalatuz.

Ez nekien zer esan, arbelean zegoena ez nuen ulertzen, eta klaseko guztiek begira neuzkan. Zer egin ahal nuen? Zenbaki bat tuntunera esan? Edo isilik gelditu? Isilik gelditu naiz.

–201 –xuxurlatu dit ahopeka nire alboan zegoen mutilak.

–201 –errepikatu dut.

Andereñoa erantzuna murmurikatu didatela konturatu da eta haserre aurpegia jarri du.

–Aitziber, adiago egon behar duzu!

–Bai –erantzun diot.

–Hobeto, bihar kontrola edukiko duzuelako –azaldu digu andereñoak.

Geratzen zen denbora guztian adi egon naiz, eta berriro galdetu didanean ondo erantzun dut.

Klasea amaitu ondoren, Kattalin eta biok liburutegira joan gara.

–Bihar kontrola daukagu. –esan dut– Gainera, latza izango da.

–Eta asko ikasi beharko dugu! –adostu du Kattalinekin.

–Egia. Gainera, zatiki baliokideak ez zaizkit ezertarako balio! –erantzun diot.

–Ez dute ezertarako balio, arratsalde guztian ikasteko izan ezik.

Arratsalde osoa egon gara ikasten, liburutegia itxi duten arte.

Etxera heldu eta Andoni eta ama agurtu ditut. Ama eta bera afaria prestatzen zeuden.

–Kaixo! –esan diet.

–Kaixo! –erantzun didate.

Andoni ez zegoenean, nebak eta biok laguntzen genion amari afariarekin. Orain Andoni dago. Normalean afaria prestatzea ez zitzaidan gustatzen, baina ez dut nahi Andonik amarekin afaria prestatzea. Horrexegatik gorroto dut! Nire ama nirekin egoteko denbora kentzen didalako!

Gaur lehenengo orduan matematikako kontrola eduki dugu. Nire ustez ondo egin dut, baina gero guztiak hasi dira esaten haien erantzunak ariketa bakoitzean, eta inork ez zituen nire erantzunak! Horrek esan nahi du, guztiak txarto edo guztiak ondo egin ditudala!

Gero, gorputz heziketako klasean pino eta txiribueletak egiten saiatu gara. Nire klaseko neska gehienek oso ondo egiten dituzte. Baina ni oso traketsa naiz. Txiribueletak egiten ez dakit.

–Oso ondo egiten dituzte! –esan du Kattalinek.

–Egia da! –ados egon naiz–. Nik ezin dut egin!

–Aitziber, Kattalin, isildu eta hasi pinoa egiten! –agindu digu andereñoak.

Pinoa egiten saiatu naiz. Baina, ez dut lortu. Eta zelako kolpea hartu dudana belaunean. Zelako mina! Andereñoa korrika hurbildu da.

–Min hartu duzu? –galdetu dit.

–Ez! –erantzun diot ausartarena eginez.

Nolakoak diren andereñoak! Noski hartu dudala min! Bihar, seguru asko, ubeldura handi bat edukiko dut!



Etxera heldu naizenean Andoni bakarrik zegoen.

–Non daude neba eta ama? –galdetu diot.

–Erosketak egiten –esan dit–. Afalostean helduko dira.

Nire logelara joan naiz. Erlojua begiratu dut: 20:30 dira. Nire telesaiorik gustukoena hastear dago. Normalean ez dut ikusten afaltzen nagoelako, baina, oraindik ez naizenez afaltzen hasi...

–Afaltzeko ordua! –esan du Andonik.

Telebista amatatzera nindoala agertu da Andoni, pizza batekin!

–Ez mugitu! –esan du–. Hemen bertan afalduko dugu!

–Hemen? Pizza? –galdetu dut– Baina amak esaten du...

Ez dut esaldia amaitu, Andonik moztu didalako:

–Ama ez dago hemen, neu nago –erantzun dit begi-keinua eginez–. Gainera, egun bategatik, ez da ezer gertatzen, ezta?

Ama eta neba heldu direnean pizza amaituta zegoen. Eta ez dute inoiz jakingo Andoni eta biok pizza afaldu dugula!

Andonik ni pozik egoteko ahaleginak egiten ditu. Oraindik ez da nire gustukoa, baina bera saiatzen bada nirekin atsegina izaten, ni zergatik ez?

Azkenean, ama pozik egotea nahi dut, ezta?

Nire bizitzako abenturarik handiena

Ander Villacián Crespo,
Artxandape Ikastola HLBHIP.

Egun on, Eusko Irratiaren sintonian zaude. Hauek dira gaurko berriak. Gaur berri garrantzitsua dugu zuei kontatzeko. Beno, gehiago itxaronarazi gabe, eguneko berria hauxe da:

Londresen ezkutuko informazio agentzia bat aurkitu da, hau da, espioi agentzia sekretu bat. Informazio sekretua bilatzen, gudak saihesten, gobernuei informatzen eta abarretan ziharduen agentzi horrek.

Londresen egon arren, mundu osotik lan egiten zuen. Askotan saihestu ditu liskarrak, beste batzuetan gobernuen informazio sekretua aurkitu, gorde eta momentu egokian munduari erakutsi, agentzia existitzen zela jakinarazi gabe. Agentzia honek ez ditu legez kontrako lanak egiten baina bai dago lan egiten aitor-tu gabe eta horrek legez kontra esan nahi du.

Egun baten, nahi gabe, bi pertsona sartu ziren lanean Londreseko agentzia horren egoitzara. Lana nola egiten zen ikusi eta gero, poliziarengana joan ziren han egiten ziren ekintzak salatzerantz. Horrez geroztik ezin du lanik egin, nahiz eta guretzat beraien lan ederragatik oso baliagarria izan.

Gaur agentzia horretan lan egiten zuen pertsona batekin hitz egiteko aukera dugu. Bere izena Gaizka da eta oso gazte zela bertarako lan berezi bat egin zuen.

–Gaizka, egun on. Nolakoa izan zen “abentura” moduko hori?

–Egun on, baita zuri ere, Mirari. Beno, dena harrigarria izan zen. Film bateko istorioa zirudien! Gainera 12 urterekin hori bizitzea ez sinestekoa da! Baina ni hautatzearen arrazoia erraza da ulertzea. Nire arbaso baten liburutegi batera joan behar genuen eta ni nintzen ondoen ezagutzen zuena eta han zegoen informazioa ulertzen laguntzeko proposena.

–Ondo da. Konta ahal diguzu detaile guztiekin zer gertatu eta zer egin zenuen misio horretan?

–Dena hasi zen 2014ko urriaren 16an. Egun horretan agentziako laguntzaile arrunt batek azaldu zidan zer egin behar nuen. Beno, arrunt arrunta ere ez zen. Nire klaseko laguna zen, hainbat urtez ibili zena bere benetako nortasuna ezkutatzan. Hariari jarraitzen, urriaren 20an eman zidan itun bat sinatzeko non zioen nik misioa beteko nuela eta ez niola inori ezer kontatuko.

–Baina orain dena kontatzen ari zara ezta?

–Bai, baina gutun bat bidali didate non kontatzeko eskubidea eman didaten britainiar gobernuak aurkitu gaituelako. Esaten ari nintzenarekin jarraituz, 2015eko uztailaren 1ean agentziaren hegazkin pribatuan Londresera heldu nintzen. Han, batzar batera sartu ninduten, Londreseko egoitzan zer bilatzen genuen eta zer egingo genuen azaltzeko. Taldekideak aurkeztu zizkidaten, Arthur eta Amy.

Egoitza Londreseko Trafalgar enparantzan zegoen 7 solairutako eraikina zen. Bulegoak eta batzar gelak zituen Viktoriar erako eraikin arrunta zen baina lurrazpian 10 solairu bete dokumentu zeuden.

Hurrengo egunean, beste hegazkin pribatu baten nengoen, Santa Barbarako irlarantz, (Hego Ozeano Barean) han baitzegoen nahi zutena.

Konturatu ginen bi kilometro karratuko uhartea txikia, aspergarria, biztanle gabekoa zela... Ez nuen uste han egon zitekeenik bilatzen genuena, ez zegoelako aipatzeko ezer ere ez. Baina, jada nekatuta nengoela irla miatzeaz, makil baten kontra jarri nintzen eta bat-batean... untxi-belarrak ezkutatuta zegoen ate bat zabaldu zen. Taldekideei deitu, arrapaladan niregana gerturatu eta atea zeharkatu genuen.

Momentu horretan konturatu ginen zerbait zegoela horman idatzita eta mezu hau ikusi genuen:

“Nik, Kornualleseko markesak, nire bizitzan zehar ezkutatu ditudan idatzi sekretuak, 400 urteko denbora tartekoak, nik sortutako liburutegi honetan gorde ditut. Hemen dauden idatziak munduari erakustea nahiko nuke oso garrantzitsuak baitira. Baina ez saldu, ez aberastu”.


Agindu hori beteko zutela zin egin zidaten. Bertan Kolonen gutunak, Leonardo Da Vinciren marrazkiak, Frantziako Luis XVI.aren burua moztu aurreko idatzi bat zeuden.

Hori guztia gainetik aztertu ostean liburutegi horren balioaz konturatu nintzen. Nire arbasoarenak ziren, Kornualleseko markesarenak.

Jarraian esan zidaten Londresera eramango zituztela idatzi batzuk aztertzeko eta ni informatuta mantenduko nindutela; horrez gain, nire laguntza behar izan ezkerro, deituko zidatela.


Bederatzietan hartuta nuen 28 orduko hegaldi pribatua Bilboraino, non nire amak galdetu zidan ikastolako kanpamenduagatik (aitzakia). Nik “oso ondo” erantzun nion. Baina oso ona baino hobea izan zen. Egun horiek paregabeak izan ziren! Misioa nire ustez nire bizitzako abenturarik handiena izan zen!!!





Angela Pfluegl Hernaez,
Deustuko Ikastola IPI.

Bazen behin ume bat haizerrota batean oso gogor lan egiten zuena; gainera, gau eta egun egiten zuen lan. 5 zentimo ematen zioten egun bakoitzeko. Jateko, kroketak egoten ziren egunero. Kroketak goxoak dira, baina, bakarrik noizean behin jaten badituzu. Bestela, nekatzen zara. Eta egun batean nekatu egin zen. Ez zuen gehiago jasan eta alde egin zuen haizerrotatik.



Oso itsusia zenez, inork ez zuen hartu nahi. Aste bat pasatu zen eta ez zuen lanik lortu. Belar bustian egiten zuen lo eta madariondo bateko mada-riak jaten zituen.

Alboko herri bateko kaleetan diru eske zebilela, beste bi umerekin topo egin zuen.

Lagunak egin ziren eta guztiek batera dantza eta kanta egiten zuten kalean.

Izugarrizko espektakulua zen, baina inork ez zien dirurik botatzen. Hiru neska-mutilak pozik zeuden, baina hurrengo astean triste baino tristeago zeu-

den. Gose eta egarri ziren eta astelehenean ez zuten espektakulu polita egin, baizik eta negar zotinka egon ziren. Gozoki-dendatik igarotzean ezin izan zuten eutsi eta gozokietan pentsatzen hasi ziren.



Gero eta gose handiagoa zuten. Oso ahul sentitzen ziren. Oso txarto egin zuten lo gau hartan, belardiaren jabeak harrapatu egin zituelako eta errieta izugarria jasan behar izan zutelako.

Bat-batean diruaren txilin hotsa entzun zen. Bere gozoki-ametsetatik esnatu eta harriturik ikusi zuten andereño batek dirua bota ziela. Kaletik zebilen jendeak hori ikusita, berdin egiten hasi zen.

Umeek eskuak luzatu zituzten diru eske eta paradisuari sentitu ziren. Dirua euri moduan jausten zen euren buruen gainean.

Etxe bat eta aste batera-ko janaria erosi zuten dirua-rekin. Dena gastatu zuten. Astearen azkeneko egunean, ogiaren azken apurrak jaten ari zirela, atea jo zuten.

—Nor da?

—Ehorzlea naiz.

—Ez gaude hilda.

—Eskerrak. Kaletik entzun dut negarti bikainak zaretela.

Umeak pixka bat haserretu ziren baina berehala konturatu ziren broma zela.


—Sartu.



—Hona etorri naiz zuek kontratatzero ehorzketetan negar egiteko.

Azkenean lana lortu zuten. Profesional bikainak bilakatu ziren eta diru mor-
doa irabazi zuten.

Horrela dirutsu bihurtu ziren, baina kaleetan ikusten zituzten pobreei ematen
zieten ia dena. Mundu guztiak preziatzen zituzten.



Pozaren lurraldea

*Iratxe Kobeaga Rui-Wamba,
Maestro García Rivero HLHI.*

Bazen behin lurralde bat, non gauzak guztiz desberdinak ziren. Ez zegoen gudarik, ez armarik, ez borrokarik. Lurralde horrek Maibit zuen izena. Han denak bizi ziren pozik. Beno, denak asko esatea da. Bazen norbait horrela bizi ez zena. Loped deitzen zen, eta Katupil mendiaren tontorrean kokatutako etxe zahar batean bizi zen. Loped izena esatea eta berari buruz hitz egitea debekatuta zegoen lurralde osoan, hiri eta herri guztietan, batez ere hiriburuan, Leter-en. Han Lopedi buruz hitz egin eta kartzelara joateko arriskua zenuen.

Leter-en ume asko bizi ziren, haien artean Itsaso izeneko neskatoa zegoen. Oso alaia zen, horretan besteen antzekoa zen, baina besteekin partekatzen ez zuen ezaugarria Lopedenganako jakinmina zen. Itsasok lagun bakarra zuen, Kat. Katek ezezaguna zuen bere lagunaren jakinmina, beste guztiek bezala.

Behin, Itsasok gurasoei galdetu zien Lopedi buruz. Gurasoek ez zioten erantzun nahi izan, —Isildu— esan zioten. Geroago, ahizpari galdetu zion eta berdin erantzun zion. Ondoren, nebari galdetu zion eta, berriz ere, berdin erantzun zion. Baina hiru erantzun horiek ez zuten bere jakinmina ase; horregatik, Kati galdetzea erabaki zuen.

—Ez egin horrelako galderarik denen aurrean —erantzun zion Katek—. Arriskutsua izan daiteke.

Itsasoren sorpresarako atsedendian erantzun baliagarriagoa jaso zuen:

—Jakingo duzunez Katupil mendiaren tontorrean dagoen etxe zahar batean bizi da. Itsusia da eta beti dago haserre. Hori da dakidan guztia.

Erantzun hori beste edozein erantzun baino hobea iruditu zitzaion Itsasori. Baina oraindik jakinmin handiagoa zeukanez, Lopeden etxera joatea erabaki zuen. Bakarrik ez joatearren, Kati galdetu zion ia berarekin joan nahi zuen.

—Ez da nire gogokoa pozik eta alai bizi ez den gizon baten etxera joatea, baina zu bakarrik uztea ere ez. Zurekin joango naiz.



Horrela larunbat goizean beraien etxeetatik irten eta plazan geratu ziren mar-txan jartzeko. Lopeden etxerako bidean, isil-isilik egon ziren, bakoitza bere gauze-tan pentsatzen. Azkenean heldu ziren. Itsasok bere esku txiki eta hotzekin atean bi kolpe jo zituen. Ezer ez. Gero beste bi. Ezer ez berriro. Zerbaiten bila hasi ziren begiekin, txirrina edo horrelako zerbait. Azkenean ikusi zuten. Soka bat sapaitik zintzilik. Eskuak elkartu eta sokatik tira egin zuten. Hogei segundo egon ziren itxa-roten, eta zarata batekin batera atea apur bat zabaldu zen. Hori gertatu zenean, barrurantz begiratu zuten eta, ez zegoenez inor, pauso txikiak emanez barrura sartu ziren. Etxe hura itsusia eta zaharra zen kanpotik, baina barrutik beldurgarria zen. Biak eskutik heldu eta begiratzen hasi ziren. Bat-batean atea zarata handi batez itxi eta Loped agertu zen haserre aurpegiarekin. Benetan itsusia zen, bai! Oso, oso itsusia!

—Zer begiratzen duzue? Tximuak ditut aurpegian, ala? —esan zuen Lopedek.

—Ez, baina beraiek baino itsusiagoa zara. Barkaidazu. —Itsasok.

—Barkaidazu! Barkaidazu! —egin zion burla Lopedek Itsasori— Ba, ez zaude barkatuta.

—Benoa —Itsasok, berriro— galdera batzuk egin ahal dizkizugu?

—Bai, baina arin —Lopedek umore txarrez—. Zopa hotzituko zait bestela.

—Zergatik bizi zara mendi tontorrean?

—Ez zaidalako gustatzen zu bezalako umemokoak ni molestatzera etortzea.

—Bale, umemokoak. Kat apuntatu, mese. Hurrengo galdera: eskolara joan zara?

—Bai.

—Zenbat urte daramatzazu hemen?

—Utzi zenbatzen... Mmm... Hamabost.

—Orain nik galdetuko dut —Katek—. Zergatik zaude beti haserre?

—Horrela jaio nintzelako.

—Eta ez litzaizuke gustatuko gu bezala bizitzea?

—Ba... egia esan... bai. Baina horretarako edabe bat behar dut eta ez dakit non dagoen.

—Nahiko zenuke... —esan zuten bi neskek aldi berean— gure laguna izan?

—Bai! Baina lagundu behar didazue.

Loped eta neskak hurrengo egunerako geratu eta elkar agurtu zuten. Itsaso etxera heldu zenean, arratsaldeko seiak ziren. Itsaso pentsatzen geratu zen: “Non egon daiteke edabe magikoa?” Bere aitari galdetzea ideia ona iruditu zitzaion. Gelatik korrika atera eta sukaldera joan zen. Aita bazkaria prestatzen zegoen, marmitakoa, zein usain goxoa!

—Aitatxo, poztasunaren edabeari buruz entzun ditut gauzak. Badakizu non dagoen?

—Pista batzuk daudela esaten dute. Pista horiek edabera eramaten zaituzte, altxorraren jokoan bezala. Lehenengo pista ezagutzen dut. Baina, zoritxarrez, beste guztiak ez. Pista hurrengo hau da: Jendea horra joaten da ikastera edo liburuak hartzera.

—Liburutegi publikoa! Agur, aitatxo! Errekadu bat egitera noa.

Eta, pauso arinez, liburutegi publikora abiatu zen. Pista liburutegian zegoen, baina non?

Liburuetan begiratzea pentsatu zuen. “*Poztasunaren edabearen kondaira*” izeneko liburua ikusi zuen. Bi aldiz pentsatu gabe, hartu eta zabaldu egin zuen. Barrutik paper zati txiki eta gorria erori zen. Itsaso makurtu eta orritxo hartu zuen. Pista bat! Idatzita haxe zegoen: **PISTA: Leter-eko plaza handienean dagoen taberna handieneko tabernari gazteenari galdetu zer leku den bere gustukoa ena hirian eta leku horretan egongo da hurrengo pista.**

“Plaza nagusia!” pentsatu zuen Itsasok.

—Bihar joango naiz pista bilatzera —esan zuen—. Orain etxera joango naiz eta Kati kontatuko diot telefonoz guztia.

Etxera heldu eta Kati deitu zion telefonoz. Hurrengo goizerako gelditu ziren pista bilatzeko. Eta gero Lopedi bisitatxo bat egitera joango ziren. Afalostean, Itsaso bere ohean etzanda zegoen, loak ezin hartuta, ia Lopedek pozik bizitzea lortu ahal izango zuen pentsatzen.

Goizean esnatu zenean, (azkenean lokartzea lortu zuen), Katen etxera joan zen pista bilatzera joateko. Katen etxeko tinbrea jo eta Kat irten arte itxaron zuen. Irten zenean biak joan ziren plaza nagusira. Taberna handiena zein zen jakitea oso erreza zen, Kafegoxo taberna, hiri osoko famatuena zen. Tabernari gazteenari galdetu behar ziotena galdetu eta bere gustuko lekua taberna hori zela erantzun zien. Baina taberna oso handia zenez, eta informazio gehiago behar zuten, taberna ko zer parte zen bere gustukoa galdetu zioten.

—Bigarren pisuko ezkerreko izkina —erantzun zien tabernariak.

Itsasok eta Katek tabernaria agurtu eta bigarren pisuko ezkerreko izkinara joan ziren. Izkina horretan miatzen hasi ziren. Katek mahaiaren azpian begiratu eta kolore gorriko paper bat aurkitu zuen. Pista zen! Paperean horrela ipintzen zuen:

PISTA: norbaitek mina badauka horra joaten da osatzera. Toki horretako itxaron gelan dagoen eserleku batean dago hurrengo pista.

—Ospitalea —oihukatu zuten Katek eta Itsasok aldi berean—. Bihar joango gara pista bilatzera. Orain Katupilera joan behar dugu, Lopedekin geratu ginen eta.

Hori esan eta Katupil mendirantz abiatu ziren. Katupil mendiaren tontorrera heldu zirenean sapaitik zintzilik zegoen sokatik tiratu eta atea zabaldu arte itxaron zuten. Guztiz zabaldu zenean, sartu egin ziren eta atea beraien atzetik itxi zen. Loped haserre aurpegiarekin hurbildu zen baina, nortzuk ziren ikusi zuenean, aurpegia poztu egin zitzaion.

—Jesarri mesedez —esan zuen sofa seinalatuz—. Zerbait lortu duzue? Zuen zain nago goiz guztia.

—Bai —erantzun zuen Itsasok—. Pista bat nire aitak kontatu zidan. Bestea nik aurkitu nuen eta gaur beste bat aurkitu dugu. Arratsaldean hurrengoaren bila joango gara.

—Eta zenbat pista falta dira?

—Nire aitari galdetu beharko diot gaur. Baina badakigu hurrengo ospitalean dagoela.

—Ospitaleko itxarongelan —zuzendu zuen Katek.

Isiltasun luze bat egon zen.

—Te beroa nahi duzue? —moztu zuen Lopedek isiltasuna.

Bi neskek baietz esan zuten buruaz. Loped korridore luzetik desagertu zen. Katek eta Itsasok isilik jarraitu zuten Lopedek te beroa ekarri zuen arte.

—Eskerrik asko —esan zuten bi neskek aldi berean.

—Nik uste joan dut egin behar zaretela —apurtu zuen bigarrenez isiltasuna Lopedek—. Zuen gurasoak kezkatu egingo dira.

—Arrazoia dauka, Kat. Goazen etxera. Gure gurasoak kezkatu egingo dira bestela.

Itsaso etxera heltzerakoan ongietorri hau egin zion bere familiak:

Ahizpa Leire: Itsaso! Oso kezkatuta egon gara, guztiak zure bila. Beno, Julen oso pozik ibili da zu gabe... Non ibili zara?

Ama: Itsaso, laztana, non ibili zara? Oso kezkatuta egon gara zure bila. Poli-ziari deitzeko zorian egon gara.

Aita: Ez eman inoiz gehiago honelako sustorik, txiki. Non egon zara?

Neba Julen: Etorri zara jada. Zergatik bueltatu zara? Oso ondo egon naiz zu gabe!

—Gose naiz. Noiz bazkalduko dugu? —esan zuen Itsasok.

Bazkaldu eta gero, Katek Itsasori deitu zion autobus geltoki batean gelditzeko eta han egon ziren hamabost minututan. Autobusa itxaroten egon ziren bitartean hitz egiten ibili ziren. Autobusa heldu zenean, igo, jesarri, eta hitz egiten jarraitu zuten. Ospitalera heldu zirenean, itxaron gelan sartu eta jesarleku libre guztietan begiratu zuten. Ez zuten ezer aurkitu, baina orduan gogoratu ziren haien azpian ere egon zitekeela eta jesarleku guztietan begiratu zuten pista aurkitu zuten arte.

Pistan horrela jartzen zuen. **PISTA: Pista hau badaukazu bostetik lau dituzula esan nahi du. Oraingo pista hau errazena da: zure bihotzak esaten dizun lekuan egongo da.**

—Kat, arazo bat dago. Gu bi gara. Nola jakingo dugu non dagoen pista gure bihotzek gauza desberdinak esaten badizkigute?

—Egia da. Hiru esaten dudanean bakoitzak bere bihotzak dioena esango dugu. Bat, bi, hiru! Plaza Nagusia! —esan zuten biak batera.

—Eskerrak —esan zuen Itsasok—. Baina zer partetan? Oso handia da. Lehen bezala. Bat, bi, hiru!

—Ezkerraldean dauden eserlekuak! —esan zuten biek aldi berean.

Autobusa bueltan hartu eta Plaza Nagusiaren ondoan zegoen bus geltokian jaitsi ziren.

Eserlekuak zeuden lekurantz joan eta aulkien inguruan begiratzen hasi ziren. Denbora kostatu zitzairen, baina... edabea aurkitu zuten!!!

Lopeden etxera itzuli behar izan ziren edabea ematera. Loped oso oso pozik jarri zen. Edabeari tapoia kendu eta edan egin zuen. Lopedek poztasun olatu bat sentitu zuen bere barruan. Itsaso eta Kat Itsasoren etxera joan ziren. Dena kontatu zioten Itsasoren familiari. Hasieran izutu egin ziren, baina gero dena ulertu zuten. Katen familiarekin berdin egin zuten eta erantzun berdina eduki zuten ere. Gero Maibiteko presidenteari ere dena azaldu zioten eta erantzun bera eduki zuen. Handik aurrera Maibiten denak bizi izan ziren pozik, den-denak, baita Loped ere.



Egunkariaren tragedia

*Pablo Camara García,
San Inazio HLHI.*

2

2015eko urtarrilaren 8a

Ez dakit zer gertatu zaidan. Atzo bizirik nengoen eta gaur hilda nago.

2015eko urtarrilaren 6a

13:30

“Charlie Hedbo” egunkarian, Frantzian, lan egiten nago. Gaur publikatu ditugu karikatura batzuk Mahomarekin. Badakigu musulmanek ez dutela umore asko eta karikatura hauek molestatu ahal dietela, baina karikatura batzuk baino ez dira. Ezin dute min egin eta gutxiago norbait hil. Karikatura horiek publikatu eta gero, lan egiten jarraitu dut.

Bihar ez zait tokatzen lan egitea. Familiarekin pasatuko dut egun osoa.

21:15

Oraintxe bertan deitu didate. Egunkariko pertsona batek baja hartu du eta ni joatea behar dute.

Ezetz esan diet, baina diru gehiago eskaini didate eta diru hori behar dut, nire semeei eta emazteari sorpresa eman nahi diedalako. “Disney Land Paris”-era eraman nahi ditut.

Denbora luzea egon naiz dirua aurrezten. Oraindik ez dut dirua lau sarrerak erosteko, baina gutxi geratzen zait eta bihar lan egitera banoa, erosi ahal izango ditut. Gainera nire bi semeek 5 urte dituzte, oraindik txikiak dira eta ilusio handia egingo die, zeren eta egun guztietan eskatzen baitidate “Disney Land Paris”-era joatea. Orduan esan dut bihar joango naizela lan egitera.


2015eko urtarrilaren 7a

Egunkarian nago lan egiten. Dena dago ondo baina ezin ditut kendu burutik atzoko karikaturak musulmanekin. Ez zitzaidan gustatu karikatura horiek publikatzea. Banekien zeozer txarra gertatuko zela baina langilea naiz, zer egin ahal dut?

Atsedenaldia hartu dut kafea hartzeko. Leihora joan naiz kalera begiratzeko eta kotxe beltz bat egunkariaren atean gelditu dela ikusi dut.

Begira geratu naiz eta kotxe beltz horretatik bi gizon beltzez jantzita atera dira.

Ikusi dut polizia bat joan dela esateko han ezin dela aparkatu. Bat batean bi gizonak metrailetak atera dituzte eta hil egin dute polizia. Bi gizonak egunkarian sartu direla ikusi dut eta mahai baten azpira joan naiz korrika.



Ezin dut ezer egin. Nire lankideak nola hiltzen dituzten ikusi dut.

Bat batean ikusi dut gizon batek ikusi nauela. PUM bat entzun dut. Ez dut gogoratzen ezer gehiago.

2015eko urtarrilaren 8a

Gogoratzen dut zer gertatu zitzaidan. Banekien karikatura horiek ezin zutela ezer ona ekarri, baina ez nuen espero hori. Espero nuen salaketa bat edo antzeko gauza bat baina egin dutena ez nuen espero.

Hilda nago. Ezin dut ezer egin, baina modu batean badakit guk eduki dugula erru pixka bat. Beraiek ezin dute hil inor, baina guk ezin dugu egin egin duguna.

Gogoratzen dut lau sarrerak utzi ditudala mahaiaren gainean, nire bi semeek eskolatik ailegatzen direnean sarrerak ikusteko.

Orain badago sarrera bat soberan baina ez zait inporta. Egin dudanarekin bakean joan ahal naiz.

C

KATEGORIA

(DBHko 1. eta 2. mailak)



Non bizi ote naiz??

*Itxaso Hernández Costoya,
Karmelo Ikastola-Solokoetxe BHI.*

—Kaixo! —esan zuen koadernoak.

—Aupa! —erantzun boligrafoak.

Boligrafoak Bicky zuen izena eta koadernoak Oxi.

Oxi eta Bicky hainbat koloretako baso eder batean bizi ziren. Bicky, arkatza, ezabagoma, zorrozkailea eta tipex-arekin bizi zen etxolatxo batean. Oxi, etxolan sartzeko handiegia zenez, ondoan bizi zen.

Bicky eta Oxi ez ziren gaur egun ezagutzen dugun eskola materiala bezalakoak; hurbil zeudenean, zerbaitek erakarrita bezala, magia balitz bezala, bizia hartzen zuten.

Bickyk marraztea gustuko zuen eta Oxik margotua izatea, kilimak egiten zizkiolako, eta kilimak maite zituen. Gainera, Bicky ez zen urdina, gorria edo berdea, pentsatzen zuen kolorekoa bilakatzen zen. Eta Oxi ba... koaderno magikoa zen, horrekin geratu beharko gara. Baina ez beti, kontuz, bakarrik Bickyrekin elkartzen zenean.

Oso pozik zegoen egun batean Bicky marrazten hasi zen. Bicky hiperaktiboa zen eta pozegi zegoenean ez zion marrazteari uzten, kasu honetan bezala. Hurren-

go egunean lasaiago zegoen eta marraztera abiatu zenean, zuriz zeuden orriak azkenak zirela konturatu zen eta kezkatuta etxolan sartu zen.

Ez margotzen saiatu zen, baina ezin. Ahal zuen txikien egiten zituen marrazkiak baina azkenean orri zuriak bukatu ziren. Etxolan kezkatuta egun asko igaro zituen.

Oxik ez zuen zer eginik eta ez zegoen irtenbiderik. Gainera, ezin zuen inork ordezkatu, bakarra baitzen munduan. Edo ezagutzen al duzu Oxiz aparte beste koaderno magikorik?

Bicky etxolan sartuta geratu zen denbora luzez bizilagunekin hitz egiten. Beno, egia esan, bakarrik hitz egiten zegoen, bizilagunak ez zeudelako bizirik.

Hamar egun igaro ziren eta Bicky etxolatik atera zen Oxirengana joateko. Haize bolada bat nabaritu zuten. Bickyk Oxi heldu zuen baina zerbaitek lurrera bota zuen, panpina zahar bat bezala. Bicky kostata etxolan sartu zen, Oxi urruntzen baitzegoen eta euren arteko erakarpena galtzen ari baitzen.

Oxik ez zekien zer gertatzen zen. Zergatik haizeak bakarrik hartu zuen bera? Zergatik bota zuen Bicky? Poliki-poliki Oxi eta Bickyren erakarpena indarra galtzen joan zen, elkar banatzen baitzeuden.

Egun batzuk pasata Bicky bere buruari galdetzen hasi zen:

—Zergatik eraman dute Oxi eta ez ni? Non ote da Oxi eta non nago ni?

Bickyk begiak zabaldu zituen guztia amets gaizto bat izateko itxaropenarekin. Ez zegoen bere etxolan eta ez zuen basoa ikusten, non ote zen? Orduan konturatu zen Oxi hurbil ibili behar zela, bestela ezin izango zuen pentsatu ez zelako bizirik egongo, ezta bere buruari galderarik egin ere.

Bai, arrazoa zeukan, Oxi bertan zegoen neskata baten klaseko mahaiaren gainean.

Bicky korrika hasi zen Oxirengana baina neskaren eskuak gelditu egin zuen.

—Utz nazazu bakean, utzi Oxirengana hurbiltzen mesedez —esan zuen Bickyk haserretuta eta aldi berean kezkatuta.

Neskak harrituta eta beldurtuta honela esan zuen:

—Bo-bo-boligrafo-fo ma-ma-magi-gikoa al z-z-zara?

Eta Bickyk erantzun:

—Egia esan, ez naiz beti magikoa, bakarrik Oxi hurbil dagoenean.

—Nor da Oxi?

—Neu naiz, zure koaderno alaia —erantzun zuen Oxik pozez.

—Zu Oxi zara, eta gainera magikoa? —neskak ezin sinetsian.

—Bai. Bicky eta biok baso batean bizi gara eta Bicky, konkretuki, bertan dagoen etxolatxo batean. Ni handiegia naiz etxolan sartzeko, beraz, ondoan bizi naiz eta Bicky ni ikustera ateratzen da —azaldu zuen Oxik.


—Hori da zuen historia guztia? —galdetu zuen neskak.

—Ez, gehiago dago. Egun batean haize bolada antzeko batek banatu gintuen eta ez dakit ondo zer gertatu zen, baina Oxi eraman zuen eta bueltatzerakoan, gas-tatutako orri guztiak zuriz zeuden, ez marrazkirik ez ezer —jarraitu zuen Bickyk.

—Baina orriena nik egin nuen! Koaderno bukatzerakoan beste bat erosi nuen eta bere azalak oso itsusiak zirenez, “Oxiren” azaletan orri berriak jarri nituen eta zaharrak gorde nituen —esan zuen neskak.

—Baina orduan, non daude nire marrazkiak dauzkaten Oxiren orri zaharrak? Zer da nire etxola? Eta larriena, zer da gure basoa? —galdetu zuen Bickyk kezkatuta.

—Orri hauek diozu



—Eta zer “etxola”?

Hau



—Eta basoa, zer baso? —galdetu zuen neskak liluraturik.

—Bai, horixe da Bickyren etxola! Baina orriak... nireak dira, ziur, baina arraro ikusten ditut —esan zuen Oxik pentsakor.

—Basoa, gure basoa. Non gordetzen duzu nire etxola eta Oxi? —galdetu zuen Bickyk.

—Badakit! Baso hau diozu,

ezta? —asmatu zuen neskak.



—Gure basoa! —oihu egin zuten Oxik eta Bickyk aldi berean.

—Badakit zergatik ikusten ditudan orriak hain arraro. Ez dute marrazkirik, bakarrik egindako tokian agertzen direlako; hau da, basoan —azaldu zuen Oxik alaitasunez.

—Beraz, “zuen basoan” sartzen badituz orriak Bickyren marrazkiak ikusiko dira? —galdetu zuen neskak sinetsi ezinik.

—Bai, frogatu ea arrazoia duen —eskatu zion Bickyk kuriositatez.

Baieztatu zuten egia zela eta marrazkiak ikusten zirela.

Orduan neskak esan zien:

—Bicky, zure etxola nire estutxea da, eta basoa nire motxilan dagoen marrazki bat baino ez da. Estutxea bertan gordetzen dudanez, bertan bizi zarela uste duzu.

—Eta orduan, zuk eginda izan da gure abentura guztia? —galdetu zuen Bickyk etsiturik— eta zergatik ez da bukatu gure magia?

—Uste dut zuen abentura bizi nahi izateak eragin duela posible izatea eta magia Oxiren azalean bildu dela —azaldu zuen neskak.

—Orduan...

—Ane! Utzi materialarekin hitz egiteari eta hasi lanean, leloa dirudizu! Zer esan dut?! —oihukatu zion irakasleak haserre.

—Ba... Barkatu ez naiz enteratu —esan zuen Anek lotsatuta.— Barkatu Oxi, barkatu Bicky baina lanean hasi behar dut zuen laguntzarekin...

Jokin

*Olatz Robles Irigoien,
Deustuko Ikastola IPI.*

Bilboko kale bateko izkina batean ikusi genituen Jokin eta bere mutil-laguna musuka, besarkatzen. Inguruan zegoen mutil talde bat Jokin jipoitzen eta biraoka hasi zen. Jokinen mutil-lagunak lasterka ihes egin zuen eta ez genuen inoiz berriro ikusi. Besteak... barre algaraka. Gehienak, mugikorra eskuetan, Jokin nola jipoitzen zuten grabatzen ari ziren. Ni han geratu nintzen. Isilik. Geldi. Ez nekien zer egin.

Jokinek lurrean bukatu zuen sudurra hautsirik eta konortea galduta. Guztiek alde egin zutenean harengana hurbildu nintzen. Jada esnatuta zegoen eta ikusi nindueanean besarkatu egin ninduen. Negarrez zegoen eta ni ere berarekin batera negarrez hasi nintzen.

Hurrengo egunak uste baino txarragoak izan ziren. Ia egunero jipoitzen zuten edo sare sozialetatik birao oso gogorrak egiten zizkioten. “Marikoi puta, hil zaitez”, esate baterako.

Ahal nuenean lagundu egiten nion ezkutuan. Behin, amari laguntza eskatzeko esan nion baina Jokinek esan zidan ez zuela ezer esan nahi etxean, homosexualitatea gaixotasun gisa hartzen zutelako. Egun gogorrak jasan behar izan zituen. Egunak aste bilakatu ziren eta asteak hilabete. Haren eskolako notek beheraka egin zuten eta ahul zegoela nabari zitzaion. Ez zuen jaten eta ez zuen hitz egiten.

Behin, ospitaletik deitu zidan Jokinek zainak moztu zituela esateko. Hori entzun eta lasterka joan nintzen beregana. Negarrez zegoen. Ohean berarekin etzan nintzen eta horrela ezin nuela ikusi eta konponbide bat bilatu behar genuela esan nion.

Hurrengo egunean eskolara joan, mahaiaren gainera igo eta ikaskide eta irakaslearen aurrean hurrengo hau esan nuen:

—Zuen ikaskide bat ospitalean dago, zuen erruagatik. Zuotako askok eguneroko jipoitu duzue, birao oso gogorak esan dizkiozue, bakarrik sentiarazi, kaka dela pentsarazi. Guztiz isolatu duzue eta negarra eragitea lortu duzue. Hori bazen lortu nahi zenutena... zorionak, lortu duzue.

Pentsatu momentu batez. Nortzuk zarete zuek besteek nor maite behar duten esateko?

Berdin dio heterosexuala, homosexuala ala bisexuala izan, errespetua merezi dugu. Ez duzue uste? Zuei gustatuko litzaizueke beste norbaitek ez uztea maite duzuen pertsonarekin egoten edo pertsona hori maitatzeagatik jipoitzea? Ez, ezta? Ba hori da zuetariko askok Jokini egin diozuen. Ni ere lesbiana naiz eta harro nago.

Denak geratu ziren isilik, ezer esan gabe edo esan ezinik. Bat-batean txaloka hasi ziren batzuk. Asko poztu nintzen.

Jokinengana joan nintzen korrika, egin nuenaren berri ematera. Baina iritsi nintzenerako berandu zen. Jokinek zainak moztu zituen berriro. Oraingoan hil egin zen. Ezin izan zuen gehiago jasan.

Bere gorpua nola tapatzen zuten ikusitakoan negarrez hasi nintzen, oihuka. Ezin nuen sinetsi nola maitasun kontu txatxu batek bultzatu zuen Jokin heriotzara. Ama bertan zegoen azalpen baten eske. Dena azaldutakoan besarkada bat eman zidan.

Oraindik ere faltan botatzen dut Jokinen irribarrea, ez dut inoiz ahaztuko.

Gaur egun Saioarekin bizi naiz, nire emaztea da eta bi alaba adoptatu ditugu. Gainera, homosexualen, transexualen eta bisexualen eskubideen alde lan egiten duen talde bateko partaidea naiz. Taldera bikote homosexual edo bisexualak etortzen dira eta duda bat badaukate edo zerbait behar badute, laguntza eskaintzen diegu.

Jokinen omenez, berdintasuna egongo den mundu baten alde egingo dut borroka. Baina, oraingoan, ez nago bakarrik.

Gure txoria

*Ane Marquínez Pereda,
Begoñazpi Ikastola HLBHIP.*

Bazan behin Ana deituriko neskato ule gorria. Bederatzi urte eukazan eta Norvegiako mendi garai baten bizi zan bere familiagaz egurrezko etxe baten.

Hiritik urrun bizi zanez ez eukan lagun askorik eta normalean ez zan etxetik ateratzen. Hori zala eta, bere gurasoek txakur bat oparitu eutsien.

Ana txakurraz arduratzen zan, garbitzen eta zaintzen eban. Arratsaldero bera-gaz ibiltzera joaten zan eta elurragaz jolasten aritzen ziran biak. Horrelakoak ziran egunak Anarentzako.

Egun hotz eta ilun baten, Ana arratsaldero lez, txakurragaz etxetik kanpo joan zan ibiltzera, bueltatxo bat ematera. Basoan egozala Ana txakurrarekin jolas-ten hasi zan, elur bolak berari botatzen. Arratsalde osoa igaro eben jolasten. Ilun-tzen hasi zan, etxera bueltatzeko orduan zan.

Anak etxera joateko bidea hartu eban, baina txakurra ez zan leku haretatik mogidu. Anak atzerantz begiratu eban eta txakurra bertan zorua usaintzen egoala ikusi eban. Neskatoak behin eta berriro deitu eutsan txakurrari, baina animaliak ez eban kasurik egiten. Azkenean Ana txakurrarengana joan eta bertako zoruko elur hotza mogitzen hasi zan txakurragaz batera.

Bat batean, elur artean gauza marroixka bat egoan, txori txiki eta polit bat zan! Anak txori gixajoa hartu eban berak eta txakurrak egindako zulotik. Txoriak hego bat zaurituta eukan eta ezin eban hegan egin. Oso hotz egoan eta Anak bere eskuekin beroa ematen eutsan.

Anak esku batean txoria eukala, txakurra lastandu eban, bera izan zan txoria aurkitu ebana eta.

Behin txoriagaz, Ana bere txakur leialagaz etxerantz abiatu zan.

Etxera heldu orduko, Anak txoriari habi txiki, bero eta eroso egin eutsan bere logelan. Hegoa ere begiratu eta zapi batekin ondo jarri eta zaindu eban.

Goizero Ana eta bere txakurra basora joaten ziran txoriarentzako janari bila. Normalean gereziak eta fruitu lehorrak hartzen ebezan eta honetako nahiko eukiezanean etxera bueltatzen ziran eta txoriari eskaintzen eutsezan.

Hori hilabete batez egiten egon ziran eta txoria hobetzen joan zan. Jadanik txioka ibiltzen zan, baina ez zan hegan egiten ausartzen, baina denboragaz lortu eban. Sendatuta egoanez, Anak aske uzteko garaia heldu zala pentsatu eban eta hori izango zala hoberena. Beraz, txakurra eta txoria hartu eta aurkitu eben lekura joan ziran.

Bertan Anak agur lez txoria lastandu eban. Txakurrak ere buruagaz lastandu eban txoria eta Anak txoria joaten utzi eban.

Anak eta txakurrak elkar begiratu eben eta etxera joan ziran. Triste geratu ziran, baina alai ere bai txoria aske eta beste animaliekin egoala pentsatzen ebe-nean.

Udaberria heldu zanean Anaren logelaren leihoan txori polit bat pausatu zan, abesti alai eta goxo batzuk abesten. Eta udaberrian zehar, egunero, leiho horretan pausatu zan txori eder ha.



AMETSA


Markel Becerra Lorenzo,
San Adrian BHI.

I lunpean nago. Urduri. Ez dakit zer egiten dudan hemen. Ez dago inor eta ilun dagoenez beldur naiz. Mugitzen naizen aldiro hotzikara sentitzen dut sorbaldan. Norbaitek ukitu banindu bezala. Orain argia piztu da, baina ez da zuria, berdea baizik. Nahiz eta dena ikusi oraindik beldurra daukat. Konturatzen naiz baso batean nagoela. Bakarrik eta galduta. Lasaitzen saiatzen naiz, baina ez dut lortzen. Orduan pertsona bat agertu da. Hobeto esanda, ez da pertsona, mamua baizik. Korrika hasi naiz nire hankek ahal duten azkarren. Ahots batek ahopeka esan dit atzera begiratzeko, baina ez diot kasurik egin nahi. Izututa nago eta ez da momentua. Arnasa falta zait eta gelditzea erabaki dut.

Nire alboetara begiratu dut. Zelai handi batean nagoela konturatu naiz. Lorez beterik dago. Deskantsu bat egingo dudala iruditu zait. Hemen argia zuria da eta ez dago ez mamurik ez zaratarik. Lurrean etzan egin naiz paisaia behatzera. Bat batean itzal bat niregana etortzen ikusi dut. Mamuaren itxura dauka, baina ez du aurpegirik. Hodei beltz eta handi bat ikusten da. Ekaitza dator. Eta niregana. Ingu-rura begiratu dut baina zuhaitz bat ikusi dut soilik. Zuhaitzera noa eta zuhaitzari eutsi diot. Euria egiteari ekin dio. Denbora gutxira haize boladak hasi dira eta ni beldurtuta eta zuhaitzari eutsi ezinik. Negarrez hasi naiz galdera bat bakarrik dudala buruan: noiz amaituko da amesgaizto hau?



Nire lagunak, familia, ikaslagunak... ikusteko gogoia dut berriro. Bizitza normala izatea nahiko nuke berriro. Gogo handiz desiratu dut. Ekaitza are bortitzagoa da. Ezin dut gehiago. Nire eskuak zuhaitzetik askatzen ari dira. Orduan, tximista batek zuhaitzean jo du eta lurrera jausi naiz. Nire malkoak zaurien odolarekin bateratu dira eta sumindura jasanezina sentitu dut. Hankek eta besoek ezin dute gehiago, uste dut beldurak eta hotzak menperatu naute-la.



Bat-batean oihu bat entzun dut. Orain gogoratu dut dena. Irakaslea da. Euskara klasean nago azterketa egiten eta loak hartu nau, ez nuelako ezer ikasi. Nire azterketa zuriz dago eta bi minutu falta dira klasea bukatzeko. Ez dit eman denborarik azterketa egiteko, baina ideia bat daukat Mikoleta lehiaketarako.



Ze demontre gertatzen zaie nire betaurrekoei?

*Silvia Laucirica Perez,
San Adrian BHI.*

Kaixo, ni Edurne izeneko 21 urteko neska naiz eta duela 10 urte nire betaurrekoekin gertatutako istorio arraroa kontatu nahi dizuet.

Ni oso neska beldurtia nintzen eta gainera nire etxean gauza oso arraroak gertatzen ziren, baina nik bakarrik ikusten nituen. Horregatik beti beldur handiarekin nenbilen etxetik. Gauetan ez nintzen inoiz txisa egitera joaten zaratak eta zaratak bakarrik entzuten zirelako eta gainera dena oso ilun zegoen.

Ni txikia nintzenean ez nintzen ezerengatik beldurtzen, baina egun batean beldur handia eduki nuen etxera sartzerakoan. Ez nintzen gogoratzen haren zergatiaz eta, oso harrituta nengoenez, amarengana galdezka abiatu nintzen, bera egun hartako zeozertaz gogoratzen zen galdetzera. Eta amak haxe erantzun zidan:

—Egun hori beste guztien berdina izan zen. Larunbata zen eta bazkaldu ostean siesta oso luzea egin zenuen. Esnatu eta amamarengana bisitan joan ginen. Etxera bueltatu eta, momentu horretan, beldurtu egin zinen.

Nik harriturik haxe esan nion:

—Ama, mesedez, pentsatu. Jausi egin nintzen ala horrelako zerbait gertatu zitzaidan beldurtzeko?

Ama momentu batez pentsatzen geratu zen eta gelara nindoan momentu hartan, berak esan zidan:


—Itxaron momentu bat. Amonaren etxera joan baino lehen optikara joan ginen eta oraintxe dituzun betaurrekoak jarri zizkizuten.

Nik eskerrak eman eta gelara joan nintzen detaile horri inportantziarik eman gabe.

Baina gau batean komunera joatea ahaztu zitzaidan eta hurrengo goizean oso azkar txisa egitera joan nintzen eta ez nuen beldurrik izan. Harrigarria. Betaurrekoak jarri eta berriro beldur izan nintzen. Momentu hartan ez nion inportantzia handirik eman.

Beste egun batean, lanak amaitu ostean, nire amak neba nagusiarekin medikuarengana joan behar izan zuen eta aitak erosketak egitera. Ni neba txikiarekin etxean geratu nintzen. Nebarekin jolasten nenbilen bitartean beldur handia izan

nuen. Gainera nire gurasoak etxean ez zeudenez eta etxeko nagusia ni nintzenez ezin nintzen beldurtu, bestela nire neba txikia negarrez hasiko zen. Beno, hori ez dator kontura. Gauza hau da. Jolasten nenbilen bitartean, betaurrekoak jausi zitzaizkidan eta beldurra bat-batean desagertu egin zitzaidan. Orduan betaurrekoak begiratu eta haien kristala oso arraroa zela ikusi nuen. Harrituta geratu nintzen.



Nire gurasoak ailegatu zirenean etxera gertatu zitzaidana azaldu nien eta betaurrekoak erakutsi nizkien baina beraiek horrelakoak izan behar zirela eta nire irudimena zela esan zidaten.

Ez zidaten sinesten eta arazo hori nik bakarrik konpontzea erabaki nuen. Betaurrekoak jangelako paperontzira bota nituen, baina nire gelara joan nintzen eta nire mahaian zeuden. Ni ikaratu egin nintzen eta berriro jangelara joan nintzen paperontzira botatzeko. Korrikan gelara joan nintzen eta ez zeuden, baina bira eman nuen atea ixteko eta berriro han, mahai gainean, zeuden. Oso ikaratuta nengo eta egongelako lurrera bota nituen. Gelara joan eta ez, ez zeuden nire gelako mahaian.

Baina denbora batez aitari eta amari zelan kontatu pentsatzen egon nintzen eta azkenean jakin nuen nola esan. Beraiangana joan eta horrela esan nien:

—Aita, ama, betaurrekoekin arazo bat izan dut. Jonekin jolasten ari nintzen eta betaurrekoak frogatzen utzi dizkiot eta korrika hasi da egongelatik. Bat-batean patinetearekin jausi egin da, patinetea lurrean zegoelako, eta betaurrekoak dispartuta atera dira eta egongelako sutondora jauzi dira.

Nire gurasoek Jon izan zelako ez zioten bronka bota eta hurrengo goizean betaurreko berriak eroatera joan nintzen. Handik aurrera ez dut inoiz gehiago beldurrik izan.

D
KATEGORIA
(DBHko 3. eta 4. mailak)



Nekeak

*Ibone Andraka González,
Ignacio Ellacuria-Zurbaran BHI.*

Segundo bat, neska bat, auto bat, oihu ozen bat, zarata kirrinkari bat.
Segundo bat.
Horixe da bizitzak erabat aldatzeko behar duen guztia.

Zuria

Esnatzean, mina izan zen sentitu nuen lehen gauza. Begiak ireki baino lehen, ahotsak entzun nituen nire inguruan. Poza eta ardura adierazten zituzten aldi berean eta hizketan zeuden. Zer zen esaten zutena? Ideiarik ez. Begiak ireki bezain pronto, sabai zuria ikusi nuen, nire gelakoaren antzekoa.

Jendea ikusi nuen orduan. Batzuk ezagunak, besteak ez hainbeste. Nire amahan zegoen, negarrez. Zer gertatu zen galdetu nahi nuen, baina hitz egiten saiatzean nabaritu nuen ezin nuela ahoa mugitu, ezta gorputz-adarrak ere. Oso beldurtuta nengoen, arnasa hartzeko zailtasuna neukan, amak gero eta negar gehiago egiten zuen eta nik ezin nuen ezer egin. Mundua beltz bihurtu zen.

Berriz esnatu nintzenean, gizon baten amantal zuria ikusi nuen. Arnastea askoz errazagoa zen eta atzamarrak apur bat mugi nitzakeela nabaritu nuen. Gizonak medikua zela zioen, momentuz hori zen ulertutako datu bakarra, gainerakoa oso katramilatsua baitzen. Gertatutakoa azaldu zidan.

“Auto batek jo zintuen hondartzatik bueltan zentozela, orain dela hiru aste. Koma egoeran egon zara istripua gertatu zenetik. Egia esanda, ez genuen espero esnatzerik, miraria da. Autoak min handia eman zizun, baina espero dugu zenbait hilabetetan guztiz sendatu ahal izatea. Istripua gogoratzen al duzu?”

Urdina

Hondartza zen argi eta garbi gogoratzen nuen gauza bakarra. Itsaso urdina mugitzen zen modua; zeruaren kolore zehatza (morearen, urdinaren eta laranjaren arteko nahasketa bezalakoa, zoragarria); haizea, nabarmena baina ez desatsegina... Batez ere, neska gogoratzen nuen. Ezin nuen oroitu neska hori nor zen, ezta nondik ezagutzen nuen ere; baina banekien pertsona berezia zela niretzat, eta banekien inoiz ikusi nuen neskarik politena zena, nahiz eta bere aurpegia ez gogoratu, ileak estalita baitzegoen.

Iraganeko memoria hartan sentitzen nuena, momentuan sentitzen nuenaren kontrakoa zen. Lehen, poza; orain, tristura itzela. Lehen, bakea; orain, kezka. Egun batean, duela asko, guztiz zoriontsua nintzela pentsatzea zaila zen.

Gorria

Sei aste pasatu ziren istripua gertatu zenetik, astebete etxera bueltatu nintzenetik. Egoera ez zen hobetu.

Istripua gogoratu nuen goiz hartan, kalean paseatzen nenbilen –medikuak esan zidan moduan hankak mugitzen nituen bitartean–. Zebra-bide bat pasatzera joan nintzenean, auto bat ikusi nuen. Auto gorria, ni jo ninduenaren oso antzekoa.

Neska misteriotsuarekin nengoenean gertatu zen. Hondartzatik bueltatzean, barreka, auto bat errepidetik atera eta guregana etorri zenean. Oso azkar gertatu zen, bere bidetik kentzeko astirik ere ez genuen izan. Autoaren pintura gorria ikusi nuen azken gauza izan zen, ospitalean esnatu nintzen arte.

Gogoratu bezain laster okada eztarrian sentitu nuen eta presaka etxera bueltatu nintzen. Etxean, komunean eserita geratu nintzen, negarrez eta garrasika, eszena bera buruan behin eta berriro ikusten, ihes egiteko gai ez. Halako momentuetan izan ohi da, ikusten duzunean eta haren deia ozen eta garbi entzuten duzunean: nire aitaren bizar-xafla, distiratsua eta zorrotza, nire izena aipatuz. Eskuineko eskuan hartu eta ezkerreko eskumuturrera hurbildu nuen, odol lerro txikitxo bat atera nuen arte. Hilabete batean ez nuen ezer sentitu izan, baina moztean mina sentitu nuen. Beti pentsatu izan nuen mina sentitzea ezer ez sentitzea baino hobea zela. Beste hiru zauri ireki nituen, minak gorputz osoa bete arte. Komuneko zoru zurira jausten ziren odol tanta gorriak.

Berdea

Inork ez zituen nire orbainak ikusi, nahiz eta gero eta gehiago moztu. Barnean, nire egoera txarrera zihoan, baina fisikoki zenbait aurrerapen egon ziren ordurako. Berriro idazten hasi nintzen eta nire idazkera oraindik nahiko zikina izan arren, oso harro nengoen.

Neskaren izena gogoratzen nuela uste nuen. Zuriñe. Nik Zuri deitzen nion. Amari galdetu nahi nion hari buruz, baina horretarako lanetik bueltatu arte itxaron beharko nuen.

Parkera joan nintzen, burua apur bat argitzeko asmoz. Bi mutiko txiki zeuden belardi berdean futbolera jolasean, edo gutxienez, saiatzen, baloiaren kontrola behin eta berriro galduz. Ni eserita nengoen bankurantz ihes egin zien azkenean. Mutiko gazteena etorri zen baloiaren bila eta niri begiratzean, bere begi berdeberdeak ikusi nituen. Beste oroitzapen bat bueltatu zitzaidan bat-batean. Zuriñek kolore bereko begiak zituen, unibertsoa beraien barruan ikus zenitzakeela zirudien.

Dena gogoratu nuen momentu hartan: elkarri oparitutako begiradak, laztan ezkutuak, musu samurrak, barreak... Zuriñe maite nuen. Zuriñe istripuan zegoen. Zer gertatu zitzaion jakin behar nuen. Korrika hasi nintzen etxerantz, ama lanetik heldu zen ikusteko irrikan. Etxera heltzean, amaren auto zaharra bertan zegoela ikusi nuen.

Grisa

Hodei grisak ikusi nituen hilerria zeharkatzean, eta Zuriñe etorri zitzaidan burura berriz ere. Nire begi grisak Zuriñeren begi berdeetan islatzen ziren modua gogoratu nuen, eta malkoak sentitu nituen aurpegian. Berri itxurako hilarri grisa ikusi nuen urrutian, Zuriñerena.

Azken egun hartako elkarriketa etorri zitzaidan burura, Zuriñeren begien distira etorkizuneko ametsei buruz hitz egiterakoan. Filosofiarako preinskripzioa bete



nuen beste egunean. Ia ezin dut sinetsi, hain hurbil dago, kasik errealitatea bada jada. Ikusiko duzu, Irantzu, primerakoa izango da. Beharbada nirekin etor zintezke, askoz hobe izango litzateke zurekin. Zuriñek bizitza maite zuen, eta nahiz eta oso zaila dirudien orain, nahiz eta goizean ohetik ateratzeak min ematen didan, nik ere bizitza gozatzen saiatu behar dut. Ez bakarrik Zuriñek nahi izango zukeena delako, baita nik merezi dudalako ere. Neure buruari zoriontsu izateko aukera eman behar diot.

76 urte pasatu dira zoritxarreko egun hartatik. Kolorez betetako bizitza bizi izan dut, maitemindu egin naiz, seme-alaba eta iloba ugari izan ditut, nik dakidan guztia irakatsi egin diet, munduan zehar bidaiatu dut, munduak ikusitako aldaketen lekuko izan naiz, gauza onak eta txarrak egon dira nire bidean/bidaian, baina garrantzitsuena, esperientziaz betetako bizitza izan dudala, bizitza paregabea. Hortaz, orain nire ikusmenaren ertzak pixkanaka-pixkanaka zuri bilakatzen direnean, ez nago kezkatuta, ez naiz beldur. Pozik joan naiteke.

Inor ez

*Irati Martinez de la Higalda Grande,
Karmelo Ikastola-Solokoetxe BHI.*

B galeriatik nabil, lasai, bazkaltzera joateko. 705. gelatik pasatzean, Joan presoaren ziega hutsik aurkitu dut. Orduan, Gironako presondegira aldatu dutela gogoratu dut. Ez dakit zergatik, baina sartu eta atea itxi dut. Lekua aztertzen hasi naiz, toki guztietara begiratzuz. Goiko litera ere hutsik dagoela ikusi dut. Nekatuta nago eta ohean jesarri naiz, paretari begira. Oso kolore itsusia dute gela guztiek, baina inoiz ez ditut patxadaz aztertu. Etzan eta sabaia arrakalaz beteta ikusi dut, zatiak jausten zaizkio. Ondoko manta batzuekin gorputza estali, begiak itxi eta lo geratu naiz.

Esnatzean, arratsaldeko 16:00ak direla konturatu naiz. Presozain baten pausuak eta giltzen zarata entzun dut. Jaten ari zen txiklearen zarata entzutean, Andreu dela ohartu naiz. Nazkagarria iruditzen zait jendeak ahoa zabalik txikle a jatea. Pausuak gero eta gertuago entzuten ditut. Nola azalduko diot orain nekatuta nengoe-lako hemen lotan geratu naizela? Zer pentsatuko du? Nitaz barre egingo al du? Andreu, egia esan, ez da oso argia. Esaten duen guztiarekin harro sentitzen da; dakiena esan, eta ez dakiena asmatzen du. Gainera, egun osoa ematen du sakele-koari edota ordenagailuari begira, ez du irakurtzen. Oso momentu lotsagarri eta desatsegina da. Gero eta gertuago dago. Badator nigana.

Bat batean, gelditu eta ondoko ziegako atea zabaldu du, bertako presoari irte-teko aginduz. Egia da, Eduard ere Gironako presondegira aldatuko dute gaur. Ez

nuen gogoratzen. Bihar ekarriko dituzte preso berriak, paziente berriak. Ez dira ohartu ni hemen nagoenik. Ez dut zaratarik egin. Gero eta gutxiago entzuten ditut; urruntzen ari dira.

Leihotik begira geratu naiz. Txori txiki bat ikusi dut zuhaitzean pausaturik. Bere kumeak habi batean ditu. Horrek, nire seme-alaben irudia ekarri dit gogora. Ez ditut aspaldian ikusi. Ez dut uste nire hutsunea nabaritu dutenik ere. Abrilen bikotekide berria maite dute, ni baino gehiago ziur asko. Nik ez ditut bisitatzen. Abrilek utzi eta kustodia lortu zuenetik ez ditut Jordi, Carles eta Beatriu ikusi.

Zergatik utzi ninduen Abrilek? Berak esaten zuen moduko gizon aspergarria al naiz? Zergatik ez naiz nire seme-alabekin inoiz egoten, asko maite baititut?

Egia esan, ez naiz ia etxetik irteten. Soilik lanera eta erosketak egitera joateko. Ez dut ia inorekin harremanik. Ez dut planik egiten. Etxean geratzen naiz lan egiten edota liburuak irakurtzen. Orain dela zenbat ez dudala gustuko zerbait egiten? Zergatik?

Gaueko presozaingaren txanda heldu da. Leihotik izarrak ikusten dira. Hiria- ren argiak itzaltzen doaz. Alboan dagoen etxebizitzako familia aztertzen hasi naiz. Bi emakume eta semea dira. Semea ama batekin jolasten ari da eta beste ama sukaldatzen. Amak kili-kiliak egin dizkio eta umea barrez lehertzen ari da. Zoriontsuak dirudite. Enbidia eman didate, oso irudi polita da. Masailetik malko bat jausi zait; hunkitu egin naute. Ni ere horrelakoa nintzen, alaia. Malkoa lehortu dut. Afaldu, ohean sartu eta argia itzali dutela ikusi dut.

Ez nago oso nekatuta, baina literan etzan naiz gora begira. Kartzela lasai dago. Ez da ia ezer entzuten, soilik preso batzuen zurrungak. Irribarre egin dut. Beatriuk, nirekin lo egiten zuen aldiro, errieta egiten zidan lotan nengoela zurrungarik ez egiteko. Oso zoriontsua nintzen garai hartan. Zergatik okertu ziren gauzak? Zergatik bihurtu naiz gaur egun naizen bezalakoa?

Nik unibertsitateko irakaslea izan nahi nuen, Historia eta Filosofiakoa. Baina nire gurasoek nik medikuntza ikastea nahi zuten. Beti ibiltzen ziren medikuntza karrera egiteko konbentzitu nahian. Eta azkenean lortu zuten, nahiz eta nik nahi ez izan. Eta hemen bukatu dut kartzelako psikiatra lanean. Zergatik ez nuen aukeratu gustuko nuen Historia eta Filosofia karrera? Gurasoen presioagatik? Ez dakit. Lo geratu naiz.

Esnatu eta altxatu egin naiz. Aurpegia garbitu eta erlojua begiratu dut. Goizeko 7:00ak dira. Pausuak entzun ditut nigana etortzen. Segur aski preso berriarentzat atea zabaltzera datorren presozaingaina da. Gero eta gertuago dago. Zer esango diot datorrenean? Ulertuko al du? Oso hurbil nabaritzen dut. Heldu, atea zabaldu eta joan egin da. Ez nau ikusi.

Momentu horretan ohartu naiz ez naizela inor. Inork ez du nire hutsunea nabaritu, inork ez du nitaz galdetu, inork ez da nitaz gogoratu, inork ez da nitaz kezkatu.

Nire bizitzak horrela ezin duela jarraitu erabaki dut. Abrilengana joango naiz kustodia eskatzera eta berarekin hitz egitera. Jordi, Carles eta Beatriu gehiagotan ikusi nahi ditut. Gustatzen zaizkidan gauza gehiago egingo ditut; kalera irtengo naiz. Ez dut daukadan bizitzarekin gehiago jarraitu nahi. Aldatzea erabaki dut.

Gelatik irten eta kontsultara abiatu naiz.

Maitasunak ez du generorik

*Liudmila García-Salmones Chabotov,
Nuestra Sra de Begoña LBHIP.*

Lurra gogorra da, nire aurpegia odolez beteta dago eta geratzen zaizkidan indar gutxiekin bera aurkitzen saiatzen naiz.

–Ilargia suntsitu arte, eguzkia eta izarrak elkartu arte, gure bihotzen taupadak bat izan arte. –Nire azken arnasa urruntzen da gure promesa ahoskatu ahala.

Hitz egiteko forma, bere keinuak bi bekainen artean agertzen zitzaion zimu-rean kontzentratzean, bere masailaren elutxa irribarre egitean eta nola begiratzen zintuen. Galdu zintezkeen begi haietan. Bakarrik pentsatu ahal nuen nire arimaren parterik sakonenari eragiten ziola, nola flotatzen zuen neure buruak hodeietan zehar, hitz egiten zuenean. Maiteminduta nengoela esatea gutxi da; hori baino gehiago zen, maitasunik gogorrena ezin zen konparatu horrekin.

Sentitzen nuena esan nahi nion, baina beldur nintzen. Beldur nintzen zer esango zuen, berak ni ez maitatzearen beldur nintzen, nire gurasoek esango zutenaren beldur nintzen. Esaten dute beldurra dela gauzarik onena pertsona bat kontrolatzeko eta arrazoia daukate, nahi diozuna egin ahal izango diozu pertsona horri. Baina badaude beldurra baino sentimendu indartsuagoak eta bakarrik haien zirta batekin, zu menderatzen zegoen pertsona armarik gabe geratuko da.

Nire kasuan itxaropenak irabazi zuen eta horregatik ausartu nintzen. Hala ere ez zitzaidan berriro hurbildu, ezta hitz egin ere; ezta aurpegira begiratu ere. Horrek

lur jota utzi ninduen, ez nintzen logelatik irteten, bakarrik lo egin nahi nuen, beti nengoen goibel...

Baina etxera abiatzen nengoen egun horretan nire atarian zegoen, begi more eta oso puztu batekin. Nik ez nuen ulertzen zer gertatu zitzaion eta azkenean kontatu egin zidan. Ez zekien zer geratzen zitzaion. Berak uste zuen adina zela, baina nik esan nionean sentitzen nuena, ulertu zuen horrela zela eta ezin zuela hori aldatu. Orduan, adorez bete eta gurasoengana abiatu zen. Amaitzean, ama malkotan eta aitak, inoiz baino haserretuago, ukabilkada bat eman zion eta etxetik joateko oihu egiten hasi zitzaion. Horregatik ez zuen nirekin hitz egiten, ez zekielako. Baina gurasoek horrela erreakzionatzean ez zuen gehiago jasan eta nirekin hitz egitera etorri zen.

Nik esan nion nire gurasoek ez zekitela ezer eta ez niela nahi haiei esan, baina hark konbentzitu ninduen. Etxean biak egongelan zeuden. Elkarri eskuak hartu eta kontatu nien. Haien begiradetan mina ikusi nuen, baina geratzen zen maitasun pindar horrek irabazi egin zuen.

Maitasunak ez duela generorik esaten dute, baina sexu bereko bi pertsona ikusten dituztenean, begirada alderatu egiten dute nazkarekin. Ez zaie desberdina gustatzen, ez zaie gustatzen gailentzen dena. Etiketak jartzea gustatzen zaie, animaliak bagina bezala.

Ilargia suntsitu arte, eguzkia eta izarrak elkartu arte... Amaieraren zain nengoen, mina gelditzearen zain, jasaten ari ginenaren bukaeraren zain, botatzen zizkiguten karkaxak lehortzeko zain. Bakarrik esan nahi nion zenbat maite nuen, hura ez hiltzea zen nire amets bakarra.

Maitasun txinkaugar bilakatu zen, mendekua, ordea, su itzalezina.



Erantzunik gabeko galderak

*Oihane Ozaeta Fernandez,
Karmelo Ikastola-Solokoetxe BHI.*

Zerbait kontatu nahi dizue, nonbait galduta amaituko den orri honetan. Ezagutzen oso zaila den pertsona da, oso sentibera. Ez zaizkio ez bukaerak ez agurrak gustatzen, eta amaiera zoriontsuak pelikuletako gauzak direla pentsatzen du. Promesak ez ditu gustuko eta ez du “betirako”-etan ezta zoriontasunean ere sinesten, baina bai eguneroko poztasunean. Norbaitek egin behar duena esatea ez du jasaten, ezta ardurak ere, eta arauak zein legeak gorroto ditu. Gehienetan bere burua faltan botatzen du, askotan ikusezina izatea gustatuko litzaioke, inork bera ikusi ahal ez izateko, entzun ahal ez izateko, bakarrik egoteko jendartean. Bere izaeraren zati bat berarentzat gordetzea gustatuko litzaioke, berari buruz inork ezagutzen ez duena horrela izaten jarraitzeko, baina ezagutzen dituen pertsona guztiengan markatuta utzi nahi du bere zati txikiren bat. Norbaitek mindu egiten duenean, han ezkutatuta egon daitekeen leku bat izatearen zortea du. Neska perfektua ez den arren bere huts eta akats guztiak maite ditu, eta gauza askotaz damutzen da, batez ere egin ez dituenek. Oso burugogorra da, berak ezagutzen duen pertsonarik burugogorrena. Batzuek hori txarra dela esaten dute, baina ez da egia. Bera harro dago, batzuetan hori da irtenbide bakarra benetan lortu nahi duena lortzeko. Mundu hobe baten sinisten du, nahiz eta horretarako ez den Jainkoa izan behar, ezta historian markatuta geratuko diren ekintzak egin ere.

Nahikoak dira egunero besteengatik egiten diren gauza txiki horiek, tontakeriak diruditenak.

Ez daki zer egin behar den bizitzarekin. Nork daki? Jaiotzean ez ziguten aholkuz betetako gidarik eman, arrakasta eta zorientasuna lortzeko zer egin behar den esanez. Baina horrela izan ezker, bizitzak ez luke zentzurik izango, bizitzeko abentura hori galduko genuke. Dena matematikoki kalkulatuta balego eta gertatuko zai-guna aurretik jakingo bagenu, bizitza oso aspergarria litzateke. Ikasi eta ikasi azterketa egunean soilik gogoratzeko eta edozein karrera egin etorkizunean bizitza ona izateko? Edo benetan egin nahi duguna egin? Hori da aspalditik burutik ateratzen ez zaion galdera. Alde batetik ez du bere aitona dezepzionatu nahi. Aitonak esan zion azkena asko ikasteko izan zen, karrera on bat egin eta bizitza ona izateko, baina beste aldetik... orain dela gutxi konturatu da benetan gustatzen zaiona idaztea dela. Euskarako irakasleak lehenengo idazkia eskatu zion unean, bere bizitzako zutabeei buruz idatzi behar izan zuen. Ez zuen ideiarik ere bere bizitzako zutabeei buruz, baina pentsatu gabe idazten hasi zen, eta konturatu orduko, jada, idazkia amaituta zegoen, eta goitik behera irakurri zuen, idatzi zuena sinistu ezinean. Aurreko egunean, irakasleak oso ondo idazten zuela esatean ezin zuen ulertu, oso konbentzituta ikusi zuen arren. Lehendabiziko pertsona da zerbait ondo egiten duela esan diona. Eta egia da, zeozertarako balio duzula pentsatu behar duzu beti, zuk ez baduzu zeure burua sinesten, nork egingo du, ba? Zaila dena ez da besteengandik desberdintzen zaituen zerbait edukitzea, zaila dena zerbait hori aurkitzea da.

Laster, hurrengo ikasturteei begira zer ikasi nahi duen galdetuko diote, eta noski, zentzuzko erantzuna nahi izango dute, ez txikitan ematen genituen erantzunetakoren bat, baina... gazteak gara oraindik eta ezin dezakegu jakin nola ikusten dugun geure burua hemendik urte batzuetara. Berak behintzat ez daki. Azkarregi hazten ari garen sentsazioa du. Apurka-apurka heldu arduratsu eta erantzukizun bat izango balu bezala tratatzen dute. Eta berak ez du hori nahi, "Peter Pan"-en antzera sentitzen da, betirako adin berean geratu nahiko luke. Bere inguruan dauden helduak ikusten dituenean, behin eta berriz esaten dio bere buruari heldua izatea kaka dela, ez duela horrela amaitu nahi, helduek ez dakitelako dibertitzen eta egiten duten guztia egin behar dutelako egiten dutelako, beti presaka dabilzalako. Eta horrela benetan zoriotsuak diren galdetzeko gogoia izaten du. Baina nagusiei interesatzen zaienean gara bakarrik pertsona helduak. Gehienetan ez gaituzte entzuten, ez dakigula ezer bizitzari buruz esaten digute eta asko dugula ikasteko. Ba berak umeengandik ikasi behar dutela esaten die. Umetan dena da errazagoa. Txikitan beti egoten ginen pozik eta gutxiarekin dibertitzen ginen. Gure ardura bakarra lurreko marraz ez zapaltzea zen eta gure beldur bakarra gure amak egin genuenaz konturatzeta. Kotxean gindoazenean ilargia gure atzetik zetorrela pentsatzen genuen eta lasterketak egiten genituen kristalean erortzen ziren tantekin. Ilusioz beteta igarotzen genituen egunak, batez ere Gabonetan. Gabonak heltzearekin zeuden ondo portatzen hasten ginen bat-batean, eta abenduaren 24ko ia gau osoa ematen genuen esna. Pixkanaka ilusio hori desagertuz doa. Badakigu zeintzuk diren opariak, familia-kide astun horiek ia mutil-lagunik duzun galdetzen, amagina-

rrebak hiltzen ez dituen “matasuegras”-ak, udan egongo bagina bezala koloretako lorez eginiko lepokoak, puntan amaitzen duten txano barregarriak... eta eserleku hutsak begiratzean aurpegia aldatu egiten da.

Badirudi denborarekin dibertitzen ahaztuz goazela, nagusia izateagatik ondo pasatzea debekatuta dagoela. Dena askoz hobea izango litzateke guztiok ume izango bagina. Zergatik ezin gara betiko ume izan? Zer pentsatuko du ume errugabe horrek bihurtu zaren pertsonaz? Erantzunik gabeko galderak dira. Eta urteak pasata horrela izaten jarraituko dute. Berak behintzat idazten jarraituko du, idazten duenean dena bere lekuan dagoen sentsazioa duelako. Ez dago inor bere gainetik zer egin behar duen esateko, ezta nola egin behar duen ere. Eta hori da gehien gusztatzen zaiona. Idazterakoan bera bakarrik dago, duxan zaudenean bezala, duxan zu eta ura zaudete, eta bakardade hori paregabea da pentsatzeko. Nahi duena egiteko askatasuna duela sentitzen du. Denok eduki beharko genuke askatasuna benetan gustuko duguna egiteko, arrazoi txikiren bat amesten jarraitzeko edo egunero pertsona hobea izaten saiatzeko. Mundua pikutara bidali eta gu geu izan, gusztatzen zaiguna egin eta gusztatzen ez zaiguna gure bizitzatik kanporatu, besteek zer pentsatuko ote duten galdetzeari utziz. Ez dut pertsona bakar bat ere ezagutzen guztien gustukoa denik, eta ezin dezakegu denbora galdu besteei gusztatzen saiatuz. Badaki bizitza ez dela arrosa kolorekoa, baina guk milaka kolorez marraztu dezakegu, zergatik ez? Behingoz zuzena dena egiteari utzi. Nork dio zer den zuzena eta zer ez? Osoa beti izango da txarra, istorioa txanogorritxuk kontatzen badu! Zure bizitzaren jabe bakarra izan zaitez eta milaka akats egin, benetan, ez baitu axola. Beti geuk pentsatzen duguna baino errazagoa delako bizitza. Geu gara zail egiten dugunok eta dena hankaz gora jartzen dugunok. Zergatik egiten dugu negar, irribarre egitea politagoa bada? Benetan konturatzen gara gure inguruan ditugun pertsonen garrantziaz? Gelditu zaitez momentu batean eta begira ezazu denek begiratzen duten tokira, baina ikusi inork ikusten ez duena: ikusten al dituzu zure alboan beti daudenak eta beti egongo direnak? Egunero gure bizimodua politago egiten dutenak? Sentitzen al duzu zerutik zaintzen zaituen pertsona hura? Senti ditzaitez zure oinak lurrera itsatsita, eta nola haizeak zure aurpegia ukitzen duen? Ez legoke txarto noizean behin sentitzen duzuna adieraztea, eta maite dituzun pertsonen maite dituzula esatea, bera bezalakoa izan arren, isiltasunean maitatzen duen pertsona eta sentitzen duena berarentzat gordetzen duen pertsona. Ez eduki lotsarik ez beldurrik, ez dutelako ezertarako balio; guztiz kontrakoa, izorratu egiten gaituzte, ez digute garen modukoak izaten uzten. Harrapatuta geratzen gara irtenbiderik gabeko labirintoan. Eta ez pentsa nagusia izateagatik gauza horiek ezin dituzula egin, ume baten antzera jokatu. Ume batek berehala esango luke sentitzen duena, inolako arazorik gabe.

Beldurrekin bizi ahal izateko irtenbide bakarra beldurrez hiltzea dela diote, beldurrak ezin direlako gainditu. Beraiekin bizitzea da egin dezakegun bakarra zoriontsu izaten jarraitu ahal izateko. Behin norbaitek zerbait esan zion, eta dena hankaz gora jarri zuen. Baina, arrazoi zuen: “Egunen batean lotsak eta beldurrak galduko dozuz eta lore eder batek urtengo dau orain erneta dauen hazitik”.

Bizitza aldarrikatzeko kantua

*Ainhoa Garay Benítez,
Artxandape Ikastola HLBHIP.*

Oraindik ez nago ziur gertatu denari buruz. Baina sinetsi ez arren, nire barrualdean badakit egia dela eta ezin naizela atzera itzuli. Badakit hegazkin honetatik jaisterakoan munduko neskarik politena ikusiko dudala. Badakit ezin izango naizela belauniko jarri nirekin ezkontzeko eskatzeko. Egia esanda, badakit ni horrela ikusterakoan alde egingo duela.

Alex naiz eta 22 urte ditut. 19 urte nituenean Estatu Batuetako lurreko armadan izena eman nuen eta entrenamendua egin ondoren Afganistanera bidali ninduten. Horren ondorioz, nire neskalaguna eta ni urrunduta bizi izan gara azken 14 hilabeteetan. Ez zen izan arazo handia. Gutunen bidez hitz egiten genuen eta itzultzerakoan nirekin ezkontzeko eskatuko nion. Baina pasa den hilabeteko goiz batean dena aldatu zen. Nire patruilarekin Kandaharko kaleetatik nindoala, lurrean lurperatuta zegoen lehergailu bat zapaldu nuen. Oraindik eztandaren zarata gogoratzen dut, nire buruan egunero errepikatzen den soinua da. Begiak zabaldu nituenean ospitalean nengoen eta medikuak hankak galdu nituela esan zidan. Beraz etxera itzultzera derrigortu ninduten.

Orain etxera bueltatzeko hegazkinean nago nire neskalagunarengan pentsatzen, bere ahotsa eta irria gogoratzen eta bere erreakzioa imajinatzen. San Diego-ra heldu gara dagoeneko eta urduritasunak ez dit argi pentsatzen uzten. Hegazki-

netik jaitsi naute, orain ezin dudalako ezer nire kabuz egin. Nora ikusi dut, oso dotore jarri da ni ikusteko. Hona hurbiltzen dago ez nau ezagutu oraindik. Begirada gurutzatu dugu eta ni aulkian jesarrita ikusi nau. Negarrez nagoela uste dut, malkoak nire aurpegian nabaritzen ditut. Nora ere negarrez dago. Hitz egiten hasi da baina ez dut ezer entzuten, bakarrik hankak kendu zizkidan eztandaren zarata entzun dezaket. Ez dakit nirekin moztan dagoen baina gutxienez ez du alde egin. Lasaiago nago eta bere ahotsa entzun dut. Maite nauela eta nirekin betirako egon nahi duela esan dit. Nik ere maite dut eta alde batetik berarekin egoteaz pozten naiz baina, beste alde batetik, neure burua gorroto dut berarentzat zama bihurtuko naitzelako eta ez dudalako bere bizitza hondatu nahi. Muxu luzea eman dit eta aulkia bultzatu du autorantz. Etxera heltzerakoan afaria prestatu du, ni sofán etzanda nengoela. Bere laguntza behar izan dut pijama janzteko eta komunera joateko. Ez dut ohera joateko gogoia, beraz, sofán lo egingo dut.

2 aste daramatzat etxean, oraindik ez naiz kalera irten. Egunero berdina egiten dut: telebista ikusi, jan, komunera joateko laguntza eskatu eta lo egin. Nora beti dago triste eta negarrez eta badakit nire errua dela. Gaur errehabilitazioa hasi dut eta nahiko ondo doa. Medikuak hainbat ariketa erakutsi dizkigu etxean egiteko. Nora medikuarekin hitz egiten dago eta ni bitartean beroketa ariketa batzuk egiten nabil. Nire ondoan dagoen gizon nagusi batek nirekin hizketan hasi da:

–Zu ere Peter doktorearekin zaude, ezta?

–Bai.

–Tipo jatorra da. Oh! Barkatu ez dut neure burua aurkeztu. John Thomas naiz eta bi minbiziren ondorioz bi hankak eta besoa galdu nituen. Eta zuri, zer gertatu zitzazun? jakin badaiteke.

–Afganistanen galdu nituen.

–Sentitzen dut. Eta nor da zurekin datorren neska puzka hori?

–Nire neskalaguna da. Nora du izena, zorte handia daukat dirudienez ez da honetaz konturatu –esan nion nire “hankak” seinalatuz.

–Ez esan horrelakorik berriro. 50 urte daramatzat neska berdinarekin ezkon-duta. Niri hiru gorputz-adarrak falta zaizkit eta bera da zortea duena. Entzun, mota honetako gauzak gertatzen zaizkion jendeari bizitzak bigarren aukera ematen dio zoriotsua izateko eta horretarako gauza txikietan ikusi behar duzu poztasuna eta bizitzaz gozatzen ikasi behar duzu. Hori eginez, Nora izango da zortea duena.

Gizonak hitz egiten amaitzerakoan etxera itzuli gara. Etxera heldu nintzenetik sukaldean nagoen lehenengo aldia da. Nora sukaldatzen dagoen bitartean ni gizonak esandakoari buruz pentsatzen hasi naiz. Badakit ez duela arrazoirik, beraz, sofara itzultzea erabaki dut baina Norak bidea oztopatu dit. Badakit zer esango didan. Ezin dela horrela bizi eta moztu behar genuela eta ados nago berarekin. Baina hau esan dit:



–Alex, laztana, badakit hau ez dela erreza zuretzat eta oso triste da dela, baina zure onera itzuli behar duzu. Lehengo Alex, muxuekin eta besarkadekin, beti irribarre batekin, beti bromak egiten eta txisteak kontatzen. Badakit pentsatzen duzuna mutil hobe da behar dudala baina ez. Zu behar zaitut. Eta nire Alex berreskuratzeko asmoa dut.

Azkenik lortu du. Nik irribarre egitea lortu du. Parkera aterako gara, baina Nora pozik ikusteko bakarrik egiten dut. Bide guztia eman dugu hainbat gauzari buruz hitz egiten, barrezka... Parketik nire aulkia oso azkar bultzatu du. Haizea nire gorputzean sentitzen dut. Oihukatzen joan naiz denbora guztian ume txiki bat bezala. Ez dut arratsalde osoan nire hanken falta sumatu.

Urte bat pasatu da hankak galdu nituenetik eta dena aldatu da. Gizon horrek esan zidanari eskertu behar diot gaur egun dudana guztia. Berak gauza txikiez gozatzeko irakatsi zidan eta horregatik oraindik Norarekin nago eta nire bizitza inoiz baino hobe da. Badakit maitasuneko filmetako istorioa dirudiela, baina ez. Bizitza horrelakoa da eta niretzat Noraren ondoan altxatzen naizen egun bakoitza bizitza aldarrikatzeko arrazoia da.

Ezer ez da betiko

Beatriz Uraga Corchete,
Ignacio Ellacuria-Zurbaran BHI.

2014ko azaroaren 6a, ostirala

“Ezer ez da betiko”. Bera nirekin egon da gaur eta horregatik, alai egoten saiatu naiz. Umoretsu egoteko ahalegina egin arren, beraren berri izateak tristatu egin nau. Bera berehala ohartu da horretaz eta animatzen saiatu da.

–Badakit denbora luzea dela, baina eutsi egin behar diozu. Ezer ez da betiko.

Bere hitzek are gehiago goibeldu naute. “Ezer ez da betiko”. Nire bizitzatik kanpo joan nahi dut, nire bizitza gorrotatzen dut. Neure buruaz beste egiteko gogoaz dut, baina beldur naiz. Bizitza lotuta daukat, ezin naiz hil pertsona pare bat mindu gabe. Nola adierazi hori maite dituzun pertsonen? Nola azaldu ez duzula gehiago bizi nahi? Nola esan?



Nola agurtu? Aukerarik errazena hautatu dut eta ohiko erantzuna eman diet, uneko tristura baino ez dela, pasako zaidala. Urte pare bat egon behar dudala sufritzen, hori da guztia. Ahaztu zait esatea 15 urteko neska naizela.

2014ko azaroaren 14a, larunbata

Eusteaz nekatzen hasita nago. Aspaldidanik, egia esan. Eusteaz, bizitzari ikusi ere egiten ez dizkiodan hari finei lotuta egoteaz; hariak ni sostengatzen bezala. Guda larregi pasatutakoa naiz, galera gehiegi jasandakoa. Edo ez; baina berdin du horrek. Eta neure buruari galdetzen diot zer gertatuko litzatekeen amore emango banu, eskuak askatuko banitu, haizeari ni eroaten utziko banio. Zer gertatuko litzatekeen, behingoagatik borrokatzeari utziko banio, segundo batez bada ere, pentsatzeari utzi eta jausten utziko banintz.

Zer gertatuko litzatekeen, zer, instant batez errendizioaren magalean lo gertatuko banintz, begiak zarratuz. Izan ere, zertarako jarraitu horrela, aspaldidanik ugertutako bihotz mutu batekin, odola darien zauriez betetako gorputzarekin... Bartzuetan ezin dut negarrik egin. Kanpotik. Ze, barrutik, negarrez egoten naiz. Edo nago, ia-ia une oro.

2014ko azaroaren 16a, astelehena

Gaur berri txarrak izan ditut eta hilda nago. Amildegia baten ertzean nagoela dirudi, ez dakit noiz baina badakit egunen batean jausiko naizela. Nire adinerako behintzat presio gehiegi daukadala uste dut. Arazo gogorrak ditut eta gutxi ez balitz, ezin dizkiot inori esan. Hiru kilo galdu ditut asteburuan, estresagatik, beldurragatik, tristuragatik, amorrugatik uste dut...

Sentimendu-nahasmen gehiegiengatik izan da. Zein momentutan zehazki, hasi zen nire bizitza madarikatu hau? Noiz aterako naiz infernu honetatik? Zergatik egokitu zait bizitza hau? Egunero borrokatzen ditudan gauzengatik merezi du hainbeste sufrimendu? Nire errua da pairatu behar ditudan gauzak? Hau guztia txarto amaitzen bada, nola geratuko da nire bihotza eta neure burua psikologikoki? Aurrera jarraituko luke ala orban bat geratuko da betirako? Dena amaituko litzateke niretzat, bizitza osoa pikutara joango litzateke nire erruz.

2014ko azaroaren 24a, asteartea

Gaur nire lagun onenari, konfiantzazko pertsonari, dena esan diot. Eneko da bere izena. Beltzarana, begi urdin argiekin, azkarra eta burua lurrean daukan mutil edo gazte gutxienetarikoa klasean. Nire arazoa konta diezaiokedan pertsona bakarra. Fisika eta kimika klasean gertatu da, Enekori "shock"-a eragin diot.

Kontatzen nengoen bitartean, ia negarrez nengoen eta besarkada bat eman dit. Oso eroso sentitu naiz. Klaseko azken lerroko eserlekuetan gaudenez, intimitatea daukagu, inork ez gaituelako begiratzen. Patioan nire albora etorri da eta biok bakarrik egon gara hizketan, berak galdera asko egin dizkit eta nik gustura erantzun dizkiot guztiak.

Bat-batean negarrari eutsi ezinik tanta txikiak hasi dira nire begietatik masailetara jausten. Gorkak lasaitu nau eta beste besarkada estu eta bero bat eman dit. Nire aurpegia alaitu nahian, kiroldegira eraman nau saskiratze batzuk egitera, badakielako kirola gustuko dudala.

2014ko abenduaren 1a, asteartea

Zelako amesgaiztoak izan ditudan asteburuan!!

Institutuan gertatu zen, patio orduan zehazki. Ez dakit zerk, baino zeozerk bultzatu ninduen neure burua hirugarren solairuko leihotik botatzera. Momentu horretan, irakasle bat bigarren solairuko eskaileretatik igotzen zen. Beste irakasle bat jaisten. Leihora igotzen ikusi ninduten. Salto egiteko prest nengoen, eta biak nigana korrika heltzen saiatu ziren, baina beranduegi heldu ziren. Bitartean, nire bizitzako momentu txarrak nahiz onak azkar agertu zaizkit segundo pare batzuetan zehar, nire gorputzak zoruarekin abiadura bizian talka egin arte.

Patioan zegoen jendeak nire inguruan borobil bat osatu zuen oihuka. Patio-ko irakasleak aldendu egiten zituen ikasleak, eskaileretan ikusi ninduten irakasleak jaisten ziren bitartean. Nire begiak zarratzen zihoazen. Ahots-oihu batzuek dei egiten zidaten. Irakasle batek eskuarekin nire masailak ukitzen zituen, niri deika, beste irakasle batek, berriz, anbulantzia bati deitzen zion bitartean. Haien begirada nire aurpegian jarrita. Biek kezka aurpegia adierazten zuten, ia negarrez.

Nire izena behin eta berriz oihukatzen zuten. Deiak gero eta urrunago entzuten nituen, gero eta baxuago. Denbora gelditzen zihoan. Begiak gero eta zarratuago nituen eta bat-batean konortea galdu nuen. Ospitalerantz gindoazen bitartean, urrunean, berriro ahotsak entzun nituen. Oso nahasturik, ulertezinak. Beste batzuetan arnasa hartzeko makinaren eta elektrokardiograma gailuaren soinuak entzuten nituen. Gero, berriz, beltz. Ez dakit zenbat denbora pasatu zen.

Irakasleen eta beste hainbaten presentzia sumatu nuen. Haien usainak nabari nituen, ospitalekoaz aparte. Begiak irekitzeko beldur nintzen... eta bat-batean esnatu nintzen izerditan blai eta ohea deseginda.

2014ko abenduaren 17a, osteguna

Badirudi azkenaldian ez nagoela mundu honetan. Hemen nago, baina burua eta arima ez. Ez dakit zertan nagoen. Burua galtzen ari naizelakoan nago. Oihukatu egin nahi dut. Garrasi!!! Buruak bueltak ematen dizkit, gauetan loak hartzea oztopatzen dit. Amesgaizto ikaragarriak, sinesgaitzak, bortitzak eta arraroak ditut. Klaseetan ezin dut arreta jarri, ezinezkoa da logurarekin. Begiak ixten zaizkit, burua ez daukat pentsatzeko klaseko gauzetan, denetariko arazoetan gelditzen naiz pentsakor. Benetako arazoetan, batez ere.

Zorutzen hasten nagoela uste dut. Ez eustearen beldur naiz. Aukera asko izan ditut nire ama hiltzeko, baina ez naiz ausartu. Ez naiz ausartzen. Ez naiz ausarta. Hori egiten badut, “gero” zer gertatuko ote den beldur naiz. Dena laster amaitzea nahi dut. Modu batez edo bestez. Zein mugetaraino heltzen da nire zentzua? Zer egiteko kapaz izango nintzateke, nire burutik pasatzen zaizkidan jokabideak edo

egoerak aurrera eramango banitu? Zer gertatuko da “eguna” heltzean? Gauza askoren beldur naiz. Galdera gehiago sortzen dira nire buruan baina erantzunak murrizak eta hipotetikoak dira.

URTE BATZUK GEROAGO...

Idaztea ez da nire fuertea, baina hau egiteari ekin nion nire ezjakintasuna gainditu nuenean. Hau da, nire arazoak konturatu nintzenean. Nire sentimenduak husteko egiten nuen. Azkenean norbait aurkitu nuen eta dena amaitu zen. Bizitzen hasi nintzen.

Enekok lagundu zidan nire arazoa konpontzen. 18 urte bete nituenean nire gurasoen etxetik joan ahal izan nintzen. Orduan amaitu ziren txikitatik jaso nituen jipoiak. Sufrimendu gehiegi neukan nire barnean gurasoei salaketa jartzeko. Enekok bere etxera bizitzera etortzea eskaini zidan ikasketak burutzen nituen bitartean.


Gure harremana asko estutu zen, hainbeste, non maitemindu egin ginen. Ez dakit nola, baina egunez egun sortuz joan zen gure amodioa, gero eta biziago. Zorretan sentitu nintzen berarekin eta bere familiarekin. Musika ikasketak amaitu ondoren eta irakaskuntzan hastean, diru apur bat izan nuen etxebizitza bat alokatzeko. Ez nuen molestatu nahi, hogeita bat nituen jada.

Eneko eta biok elkarrekin egon ginen urte askotan. Berak bere ikasketekin eta nik nireekin jarraitu genuen. Ez dakit baina, lehenengo aldiz pozik sentitu nintzen maitatua izateagatik, ni izateagatik, ez nik egiten nituen gauzengatik.

Hogeita zazpi urte betetzean, nire gurasoen gutun bat heldu zitzaidan. Aita zen, ama hil egin zela zioen eta mesedez ikusi nahi ninduela. Ez nintzen joan. Neure buruari esan nion ez zela komenigarria nire sentimenduentzat. Ez nituen inoiz barkatu. Vienarantz nindoan orkestra bateko gutuna jaso ondoren, fagot jotzailea behar zuten eta nitaz oso ondo hitz egin zieten.

Lan batzuk egin nituen Vieran eta Bilbora bueltatzerakoan, Eneko neukan itxaroten aireportuan. Bere falta nabaritu nuen. Soldata ona nuen eta laster beste orkestra batetik deitu zidaten. European zehar ibili ondoren, hogeita hamabost urterekin Enekok ezkontzeko eskatu zidan.

Bi seme-alaba izan nituen, pozik bizi izan nintzen, musika-ekin alde batetik bestera bidaia-tuz, mundua ezagutuz. Gaur nire egunerokoa berriz aurkitzeak, oroimen asko dakarzkut, baina ezer ez da betiko. Ezta? Eneko...



Aurkibidea

Alkatearen agurra	3
Sariak	4

A Kategoria (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak)

- Terrakottazko gudazaien maldizioa	9
- Endikaren hiru bidaiak	13
- Lagunak ez zituen inurria	15
- Makalaren bidaia	17
- Uxue eta futbola	19
- Tomateak eta meloiak	21

B Kategoria (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak)

- Itxaropena	25
- Eta benetan jeloskor banago?	28
- Nire bizitzako abenturarik handiena	32
- Hiru umeren desioa	35
- Pozaren lurraldea	38
- Egunkariaren tragedia	43

C Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailak)

- Non bizi ote naiz??	49
- Jokin	53
- Gure txoria	55

- Ametsa	57
- Zer demontre gertatzen zaie nire betaurrekoei?	59

D Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailak)

- Nekeak	63
- Inor ez	67
- Maitasunak ez du generorik	69
- Erantzunik gabeko galderak	71
- Bizitza aldarrikatzeko kantua	74
- Ezer ez da betiko	77



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO